



*txostena*  
*hegoa 2012*

[www.hegoa.ehu.es](http://www.hegoa.ehu.es)

UPV/EHU

Edificio Zubiria Etxea

Avenida Lehendakari Agirre, 81

48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91 • Fax: 94 601 70 40 • [hegoa@ehu.es](mailto:hegoa@ehu.es)

UPV/EHU

Centro Carlos Santamaría

Plaza Elhuyar, 2 • 20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 01 74 64 • [maribi\\_lamas@ehu.es](mailto:maribi_lamas@ehu.es)

UPV/EHU

Biblioteca del Campus, Apartado 138 Nieves Cano, 33

01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 42 87 • Fax: 945 01 42 87 • [gema\\_celorio@ehu.es](mailto:gema_celorio@ehu.es)

# 2012ko txostena

1.	Aurkezpena	04
2.	Prestakuntza, sentsibilizazio eta hezkuntzarako jarduerak	05
3.	Ikerketarako jarduerak	12
4.	Argitalpenak	18
5.	Irakaskuntza eta ikerketarako baliabideak	23
6.	Aholkularitza, kontsultoretza eta laguntza teknikorako jarduerak	25
7.	Sare, aliantza eta foroetako partaidetza	28
8.	Erakunde organigrama	30
9.	Txosten ekonomikoa	31

# 1. Aurkezpena

Aurten, Hegoaren sorreraren 25. urteurrena bete da, eta Institutuko emakume zein gizonok egindako bidaia luze horretan, garapenaren zein nazioarteko lankidetzaren alde lan egin dugu, justizia, berdintasun, askatasun eta elkartasun handiagoa daukan mundua lortzeko. Hain zuzen ere, horixe bera adierazi zuen gure lehenengo zuzendariak, Koldo Uncetak, 2012-2013ko ikasturteko masterrei hasiera emateko hitzaldian: *"1987-2012: 25 urteko pentsamendua garapenaren eta nazioarteko lankidetzaren arloan"*.

Guztiok ondo baino hobeto dakigunez, memoria honetan azaltzen diren jarduerak krisi bete-betean garatu dira berriro, eta garapenerako laguntza ofizialean bertan ere izan du eragina. Horren erakusgarri, horretarako erabilitako fondoak nabarmen jaitsi direnez, eragina oso esanguratsua izan da garapenerako lankidetzaren arloan lan egiten dugun erakunde eta instituziootan. Nolanahi ere, zailtasunak zailtasun, geure plan estrategikoan aurreikusitako jarduerari eutsi diegu.

Irakaskuntzaren arloan, gure graduondokoek eskari handia izan dute, doktoretzako programak Bikaintasuneranzko Aipamenari eutsi dio eta hainbat doktoretza-tesik egin dute matrikula. Ikerketako taldeek EHUren zein Eusko Jaurlaritzaren aitortzea berritu dute, eta, euren jarduerari eutsi dietenez, memoria honetan azaltzen diren argitalpenak egin dituzte. Nolako garrantzia eta zeresana duten kontuan hartuta, honako bi hauek nabarmendu nahi ditugu: Carlos Martin Beristainen eta Eloisa Gonzálezen *Oroimenaren oasia. Oroimen historikoa eta giza eskubideen urraketak Mendebaldeko Saharan*; eta Garapen eta Nazioarteko Lankidetzarako Politikak Aztertze eta Ebaluatze Ikerketa Taldearen *Garapenerako Lankidetzak Euskadin, 25 urte*.

Dokumentazio Zentroak laguntza handia eman du ikerkuntzan eta irakaskuntzan, baina, batez ere, graduondokoetan. Aldi berean, erreferentziako kontsulta-lekua ere bada oraindik, eta etengabe ahalegintzen da informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan gertatutako aldaketetara egokitzen. Garapenerako hezkuntzaren arloan, zenbait mintegi adierazgarri egin dira, eta 2014. urtean egingo den IV. Biltzarra hasi gara prestatzen. Bestetik, aholkularitza, kontsultoretza eta laguntza teknikoarekin lotutako jarduerak zenbait hitzarmen eta programaren bitartez ezarri dira Erdialdeko Amerikan eta Andeetako eskualdean. Era berean, zenbait udal eta aldundirekin ere sinatu dira horrelako hitzarmen eta programak.

Arlo honetan lan egiten dugunontzako aurreikuspenak ez dira batere errazak, seguruenik egoera ez delako funtsean aldatuko epe laburrari begira. Horretarako, borrokan jarraitu beharra dago, bertan eta mundu zabalean berdintasunaren alde dauden pertsona guztientzat, emakume zein gizonentzat, bizitzeko merezi duen bizitza duina lortzeko eta, azken batean, elkartasunean lan egiteko. Edonola ere, borroka hori ez da fondoan gorakadaren edo beherakadaren eraginpean egon behar, beste gizarte bat eratu nahi dugunon eraldaketa-borondatearen eraginpean baizik. Hain zuzen ere, erronka horri aurre egin beharko diogu hurrengo urteetan.

Azkenik, 25. urteurren honetan, benetan eskertu behar diegu geure bazkideei bidaia luze honetan gurekin egoteagatik. Izan ere, horrela jarraitzeko eskatu nahi diegu hain une latzetan. Horrez gain, eskerrik asko gure jardueretan lagundu eta parte hartu duten guztiei, eurei esker garatu egin ahal izan baititugu.

Luis Guridi.  
Hegoako Zuzendaria

## 2. Prestakuntza, sentsibilizazio eta hezkuntzarako jarduerak

### Hegoa Institutuak eskainitako graduondokoak

Hegoak zenbait irakaskuntza-motaren bidez jartzen du abian prestakuntzaren, sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren arloko jarduerak. Batetik, doktoretzako programa, Europako Goi Hezkuntzako Ikasketen (EGHI) formatura egokitutako graduondoko ikastaro ofizialak eta EHUk eskainiko tituluak ditugu. Bestetik, Hegoa Institutua osatzen dugunok Espainiako, Europako eta Latinoamerikako zenbait unibertsitatetan emandako graduondoko hainbat ikastarotan parte hartzen dugu (doktoretza, maistutzak, espezializazioa eta diplomaturak). Azkenik, jarduerak horren osagarri, beste unibertsitate, GGKE eta instituzio batzuek eskatuta emandako ikastarok, hitzaldiak, tailerrak eta mintegiak ere badaude.

### ✓ Doktoretzako Programa

Garapenari buruzko Ikaskuntzetako Doktoretzako Programa EHUk doktoretzen arloan egindako eskaintzetako bat da. Hegoa Institutuak koordinatzen du, eta honako sail hauek parte hartzen dute bertan: Ekonomia Aplikatua I, Ekonomia Aplikatua IV, Soziologia, Soziologia II eta Enpresako Zuzenbidea.

Garapenari buruzko Ikaskuntzetako Doktoretzako Programan, honako ikerketa-lerro hauek garatzen dira: garapena, globalizazioa eta nazioarteko fluxu ekonomikoak; nazioarteko instituzio ekonomikoak eta integrazio ekonomikoa; garapenerako lankidetzak eta ekintza humanitarioak; ingurumena eta garapen iraunkorra; generoa eta garapena; garapenaren finantziak eta mikroredituak; landa-inguruko garapena eta elikaduraren segurtasuna; tokian tokiko garapena eta lurraldea; migrazioak eta baterako garapena; partaidetza, demokrazia eta giza eskubideak; giza garapenera egokitutako teknologiak eta iraunkortasuna; hezkuntza, garapena eta giza gaitasunak; bazterketa soziala, txirotasuna eta desberdintasunak; gatazkak, segurtasuna eta garapena; laneko harremanak, eskubide

sozialak eta nazioz haraindiko enpresak; kultura, komunikazioa eta garapena; eta ongizatearen zein garapenaren adierazleak eta neurketa.

Doktoretzako programak Hezkuntza Ministerioak 2011. urtean emandako *Bikaintasuneranzko Aipamenari* eusten dio. Inolako zalantzarik gabe, airtortza hori suspergarri paregabea da gure erakundearentzat, baita bultzada ezin adierazgarriagoa ere, garapenaren zein nazioarteko lankidetzaren arloko ikerkuntzari eta EHU bertan eta kanpoan daukan proiektuari begira.

### ✓ Graduondoko ofizialak

#### Globalizazioa eta Garapena, Masterra

Batez ere, ikerketarako prestakuntza dauka helburu, eta globalizazioaren nahiz garapen-prozesuen arteko loturak aztertzen ditu, giza garapenaren eta iraunkortasunaren ikuspegitik. 2011-2012ko edizioan, 20 lagunek egin zuten matrikula (10 emakume eta 10 gizon), eta honako hauxe zen euren jatorria: EAE (7), beste autonomia-erkidego batzuk (9), Latinoamerika (3) eta Europar Batasuna (1). Master hau EHU osoan gehien eskatu den bigarrena izan da, izan ere, EHUko 175 aurreinskripzio izan ditu.

#### Garapena eta Nazioarteko Lankidetzak, Masterra

Batez ere, ikasleek garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloan duten prestakuntza profesionala sustatzea dauka helburu. Horretarako, honako giltzarri hauek hartzen dira funtsezko erreferentziatzat: berdintasuna, egiturazko txirotasunaren aurkako borroka, giza garapena eta iraunkortasuna.

2011-2012ko edizioan, aurreko urteetan bezala, EHUko aurreinskripzio gehien izan dituen masterra ere izan da, 379 eskabide jaso ditu-eta (279 emakume eta 100 gizon). Honako hauxe da matrikulatutako

25 laguneko jatorria: EAE (11), gainerako autonomia-erkidegoak (8), Latinoamerika (5) eta Afrika (1).

### ✓ Titulu propioak

#### Garapenerako Lankidetzako Estrategia, Eragile eta Politikiak, on line Masterra

Master hau bertoko titulua da, on line ematen da eta 2003-2004ko ikasturtean jarri zen abian. Gure lurraldean nahiz kanpoan kokatutako GGKE-etan, erakunde publikoetan eta Estatuko, lurraldeko zein tokian tokiko administrazioetan garapenerako lankidetzan lan egiten dutenen etengabeko prestakuntza jarraitua sustatzea dauka helburu. Horrez gain, mugimendu sozialetatik datozenak prestatzeko erronka ere bada, euren ikuspegietatik lankidetzaren nazioarteko agendan eragin handiagoa izateko asmoz.

Master honek 60 ECTS kreditu ditu, eta, euretatik, 48 atal teorikokoak dira. Gainerako 12 kredituak lortzeko, amaierako lana egin beharra dago. Irakas-kuntzako programa 10 ikasgaitan dago banatuta, eta masterraren iraupena 18 hilabetekoa da, guztira.

2012-2013ko ikasturtean, 74 lagunek egin dute aurreinskripzioa, eta, euretatik, 27k egin ahal izan dute matrikula (20 emakume eta 7 gizon). Honako hauxe da euren jatorria: EAE (5), gainerako autonomia-erkidegoak (9), Latinoamerika (8), Afrika (3) eta Europa (2).

#### ✓ Hegoa Institutuak prestakuntzaren eta irakaskuntzaren arloan emandako beste jarduerak batzuk

Garapenerako Hezkuntza eta Herritartasun Globala. Hegoako Hezkuntza Taldeak on line antolatutako ikastaro honek hiru edizio izan ditu. Azken biak 2012. urtean egin ziren (2. edizioa, 2011ko abendutik 2012ko maiatzera; eta 3. edizioa, 2012ko irailetik abendura). Bigarren Hezkuntzako irakasleak eta arlo horretan lan egiten duten eragile sozialak dira ikastaro honetako hartzaile nagusiak. Garapenerako Hezkuntzaren ikuspegiaren arabera, ikastetxeak herritartasun-eskolak eta jardun demokratikoa ikasteko eremuak izan beharko lirake. Hori kontuan hartuz gero, zenbait arlori buruzko hausnarketa egiten da, eta zen-

bait mailatako ekintza-lerroak proposatzen dira, hezkuntza-erkidego bakoitzaren aukeren arabera.

Globalizazioa, emantzipaziorako agendak, lankidetzak kritikoa eta mugimendu sozialak. Ikastaro espezializatua da. 2012ko ekainean, *Globalizazioa, emantzipaziorako agendak, lankidetzak kritikoa eta mugimendu sozialak* ikastaro espezializatua-ren lehenengo edizioa egin zen. Bizkaiko EHNekin batera dago antolatuta, eta Yolanda Jubetok zuzentzen du. Ikastaro honek hiru asteko iraupena izan zuen, Abadiño eta Bilbo artean eman zen eta zenbait mugimendu sozialetako bederatzi lagunek parte hartu zuten bertan. Honako hauxe izan zen euren jatorria: Guatemala, Mexiko, Honduras, Paraguai, Tunisia, Brasil eta Euskal Herria. Hiru eduki-ardatz garatu ziren bertan: 1. Modernotasun kapitalista eta patriarkalaren berrikuspen kritikoa; emantzipaziorako aukerak eta agendak; 2. Mugimendu sozialen zeregin estrategikoa; eta 3. Lankidetzak, eraldaketarako tresna: azterketa kritikoa eta aurreikuspen berriak.

#### ✓ Hegoa Institutuko irakasleen partaidetza graduondoko beste unibertsitate-irakaskuntza batzuetan

*Nazioarteko Harreman eta Afrikako Ikaskuntzak*. Master Ofiziala. Ikasgaiak: Globalizazioa, eskualdeko integrazioa eta garapenerako lankidetzak Afrikan. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.

*Garapenerako Lankidetzak* Master Ofiziala. Lankidetzak eta Garapen Politiketako e-learning modalitatea. Modulua: Garapenerako Hezkuntza. Universitat Jaume I eta Toki Garapenerako Unibertsitate arteko Institutua (IIDL).

*Ikaskuntza Feminista eta Genero Ikaskuntzak*. Master Ofiziala. Ikasgaiak: Politika sozial zein ekonomikoak eta berdintasuna; Globalizazioaren erronkak. EHU.

*Giza Baliabideen eta Enpleguaren Kudeaketa*. Master Ofiziala. Ikasgaiak: Enplegua kudeatzeko esperientziak eta tresna praktikoak, enpleguaren arloko politiken ebaluazioa. EHU.

*Garapenerako Lankidetzako Erakundearen Kudeaketa eta Gizarte Jarduketak*. Masterra. Ikasgaiak:

Globalizazioa eta lankidetzak, XXI. mendean Afrika garatzeko tresnak. Garapenerako lankidetzako eta gizarte-jarduketako zenbait testuingururen azterketa (I): hirugarren mundua, hegoaldea edo herrialde txiroak. Oviedoko Unibertsitatea.

*Oinarrizko Eskubide eta Botere Publikoak.* Unibertsitate Masterra. Ikasgaia: Nazioz haraindiko enpresak eta giza eskubideak. EHU.

*Garapenerako Lankidetzak.* Unibertsitate Masterra (MCAD) (on line). Ikasgaia: Garapenaren kontzeptuak eta teoriak. Universitat Jaume I.

*Gobernantza eta Ikaskuntza Politikoak.* Masterra. Ikasgaia: Nazioz haraindiko enpresak, gobernantza eta globalizazioa. Politika eta Administrazio Zientziaren Saila. EHU.

*Giza Baliabideak eta Enpleguaren Kudeaketa.* Master Ofiziala. Ikasgaia: Nazioz haraindiko negoziaketa kolektiboa. EHUko Lan Harremanetako Unibertsitate Eskola.

*Gizarte Demokratikoa, Estatua eta Zuzenbidea.* Masterra. Ikasgaia: Nazioz haraindiko enpresak eta laneko harremanak. Mexikoko Moreliako Unibertsitateko Zuzenbide Administrazio, Konstituzional eta Zuzenbidearen Filosofiako Saila.

*Garapenerako Berdintasuna.* (On line) Masterra. Ikasgaia: Garapenera buruzko kritika feministak. Universitat de Vic.

*Emakume eta Gizonen Berdintasuneko Masterra* (on line). Ikasgaia: Ekonomia feminista. EHU.

*Programa eta Politika Publikoen Ebaluazioa.* Magistera. Modulua: Ebaluazioaren informazio-premiak. Kudeaketa Ikaskuntzetako Zentroa. Madrilgo Complutense Unibertsitate.

*Afrikako Gizarteetak eta Garapena.* Graduondoko Diploma. Ikasgaiak: Afrika nazioarteko ekonomian eta garapenaren agendan; Afrika nazioarteko ekonomian. Afrikako Ikaskuntza eta Kultura arteko Ikaskuntzetako Zentroa eta Humanitate Fakultatea. Pompeu Fabra Unibertsitatea. Bartzelona.

*Generoa eta Nazioarteko Lankidetzak.* Ikastaro Espezialista. Ikasgaiak: Nazioarteko lankidetzak: jatorria, bilakaera eta kontzeptua. Lankidetzako eragileak eta arloak. Garapenaren finantziak. Lankidetzaren arkitektura berria. Sevillako Unibertsitatea.

*Garapenerako Hezkuntza, Espezializazio Diploma.* Ikastaroa: Lankidetzaren krisia eta garapenaren krisia: eztabaidaren faktore nagusiak. Zaragozako Unibertsitatea.

*Tokiko Garapena eta Lankidetzak: Ikuspegi berriak.* Maisutza. Ikasgaiak: Tokian tokiko giza garapena eta lurraldea. Lurraldeetako TGGren egituraketa. Lurraldeko garapen ekonomikoa giza garapenaren testuinguruan. Gaitasunen garapena eta gaitasun kolektiboak. Pablo Olavide Unibertsitatea/San Andrés Unibertsitate Nagusia, La Paz, Bolivia.

*Tokian Tokiko Giza Garapenera eta Politika Publikoak tresnak.* Nazioarteko tailerra. Ikasgaiak: Giza garapenaren ikuspegiaren kontzeptuak; txirotasuna: esparru teorikoa eta ikuspegi alternatiboa; gaitasunen garapena eta gaitasun kolektiboak; eta tokian tokiko giza garapenerako politikak. Yuca-tango Unibertsitatea, Merida, Mexiko.

## ✓ Hegoak antolatutako jardunaldiak eta mintegiak

*Garapenerako lankidetzaren krisia eta Euskadin daukan eragin berezia.* Donostiako Enpresa Zientzietako Unibertsitate Eskola, abenduaren 13a. Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak eta Hegoak antolatu zuten, eta honako hauek izan ziren aztergai nagusiak: munduko egoeran gertatutako aldaketak eta krisi finantzarioak lankidetzako programetan izan duen eragina. Bertan, hain zuzen ere, honako gai hauei buruzko diagnostikoak eta kezka partekatu ziren: munduko txirotasunean eta desberdintasunetan jazotako aldaketak, 2015. urtearen osteko egoerari begira hasitako eztabaidak eta garapenerako lankidetzaren zeregina. Bigarrenez, honako gai hauek izan zituzten aztergaiak: krisi finantzarioak lankidetzarako politika publikoetan izandako eragina eta Euskadiko garapenerako lankidetzaren etorkizunari begira sortu daitezkeen ustezko ondorioak. Azkenik, honako gai hauek ere izan zituzten eztabaidagaiak: lankidetzaren sektoreko egoera, bere babes soziala, beste dinamika sozial batzuekin daukan harremana eta beste erakunde, entitate eta mugimendu sozial batzuekin ezarri daitezkeen aliantzak.

*Garapenerako hezkuntzako unibertsitate-pres-takuntza.* Mintegi iraunkor honetan, 4na orduko

10 lan-saio egin ziren martxoaren 9tik azaroaren 9ra, Bilboko Sarririkoko Zubiria Etxean. Bertan, hain zuzen ere, unibertsitateak jakintzaren sorkuntzan daukan erantzukizuna izan zen hizpide nagusia. Izan ere, diziplina guztietako profesional onak prestatu behar ditu, eta gizartea bera hobetu behar du justizia sozialean oinarritutako oinarri etikoetatik. Hala ere, konpromiso hori ez da beti betetzen erakundeetan bertan garatzen diren prestakuntza eta ikerkuntza. Garapenerako hezkuntzaren ikuspegiak, unibertsitatean hobetu litezkeen zenbait arlo eta estrategia berrikusi ziren. Horrez gain, honako gai hauei buruz ere hausnartu zen: nolako unibertsitatea izan nahi dugun eta eizan behar dugun generoaren ikuspegia kontuan hartzen duen giza garapen iraunkorra lortzeko; nolako zeregina duten zientziak eta jakintzak; praktiketarako programak; unibertsitatean eskainitako prestakuntza (edukiak eta ikasgelan proposatutako metodologia); ekintza sozialari eta gizarteko arazo nabariari begira garatzen den ikerketa; askatasunerako teknologiak... Mintegiak plataforma birtualaren babesa izan zuenez, eduki bakoitzari buruz eztabaidatzeko foroak egon ahal izan ziren zabalik, eta beste leku batzuetako pertsonen zuzeneko mintegian sortutako hausnarketak eta materialak erabili ahal izan zituzten. <http://red.mundubildu.org>

**Garapenerako lankidetzak eta gorputz-politikak: hausnarketa feministak.** Bilbon, maiatzaren 3an eta 4an. Honako hauek parte hartu zuten diskurtso desarrollistak eta bere jardun hegemonikoek sortzen dituzten gorputz generizatuei buruz hausnartzeko jardunaldiotan: Morena Herrera, Salvadorko Tokian Tokiko Garapenerako Talde Feministako kidea; Lilián Celiberti, Uruguayko Cotidiano Mujer Komunikazio Zentroko koordinatzailea; Mari Luz Esteban, idazle feminista eta Euskadiko EHUko irakaslea; eta Maya Alvarado, Guatemalako Emakume Guatemalarren Batasun Nazionalako zuzendari betearazlea. Horrez gain, GGKE-en esperientzien berri ere eman zuten Estrella Ramilek eta Silvia de Gregoriok, eta beste ikaskuntza batzuk ere azaldu zituzten Begoña Zabalak zein Lucie Foissinek ordezkatutako iparraldeko mugimendu feministako erakundeetatik.

**Garapenerako lankidetzak ikuspegi feministatik.** Latinoamerikako Morena Herrera eta Lilián Celiberti hizlariak emandako hitzaldia, maiatzaren 2an,

EHUko Paraninfoan. Unibertsitate honetako Lankidetzak Bulegoarekin batera antolatu zen.

**Nonviolent Force in Political Change: Power and Dynamics of Civil Resistance.** Hegoak eta International Center on Nonviolent Conflict (Washington, DC) EHUko Zientzia Politikoko Sailaren laguntzaz antolatutako mintegia. Zubiria Etxea. ICNCKo irakasleek eman zuten, eta Estatu osoko zenbait unibertsitate, erakunde eta mugimendutako 70 lagunek parte hartu zuten bertan. Bilbao, martxoaren 16a.

**Palestina, Israel: borroka bateratuak eta normalizazioa.** Sergio Yahni (Alternative Information Center, Jerusalem). Hegoako *Gatazkei, Bakeari eta Garapenari buruzko Ikerketarako Mintegi Iraunkorrak* antolatu zuen (EHU), 2015 eta gehiagoko Plataformaren laguntzaz. Zubiria Etxea, Bilbao, maiatzaren 15a.

### ✓ Hegoa institutuko irakasleen partaidetza beste ikastaro batzuetan

**Afrika, errealitate ezezaguna.** Hegoaldetik hurbilago. Ikastaroa: "Lankidetzarako sarrera". Alboan, Bilbao.

**Lankidetzak instituzionalak.** Ikastaroa: "Garapenerako lankidetzarako estrategiak". SETEM, Vitoria-Gasteiz.

**Garapena eta lankidetzak solidarioak.** Garapenerako Lankidetzako Bulegoa eta Gizarte Laneko Unibertsitate Eskola, EHU. Vitoria-Gasteiz, 2011-2012.

**Gobernuz kanpoko lankidetzak.** Unibertsitateko lankidetzak. Ikastaroa: "EHUko garapenerako lankidetzak". Gasteizko Irakasle Eskola. Vitoria-Gasteiz, azaroaren 29a.

**Nazioarteko lankidetzaren erronka berriak: nazioarteko elkatasuna.** XVIII. ikastaroa: "Giza garapenerako lankidetzak eta teknologiarako sarrera". Mugarik Gabeko Ingeniaritza eta EHU. Bilboko Ingeniaritza Teknikoko Eskola. EHUko Ingeniaritzako Goi Eskola Teknikoa. Bilbao, urriaren 8a. Gizarte Laneko Eskola. Vitoria-Gasteiz, urriaren 5a.



*Nazioz haraindiko enpresak, giza eskubideak eta garapena.* Ikastaroa: "Aldaketa soziala eta lankidetzaren XXI. mendean". 4. edizioa. UBISS University of Barcelona, International Summer School. Bartzelona, uztailaren 12a.

*Nazioz haraindiko enpresen boterea.* Nazioarteko Lankidetzari buruzko XVI. ikastaroa: "Lankidetzaren eta hegoaldea, ikasbide". SETEM Nafarroa. Datak. Iruña, otsailaren 4a.

*Giza garapen iraunkorra.* Ikastaroa: "Garapenerako lankidetzarako estrategiak". SETEM. Vitoria-Gasteiz, urria.

*Garapenerako lankidetzaren erronka berriak.* Ikastaroa: "Giza garapenerako lankidetzaren eta teknologiarako sarrera". Mugarik Gabeko Ingeniaritza. EHUko Garapenerako Lankidetzako Bulego Teknikoa. Bilbao, urria.

*Garapenerako lankidetzarako sarrera.* XVIII. ikastaroa: "Giza garapenerako lankidetzaren eta teknologiarako sarrera". Mugarik Gabeko Ingeniaritza, Euskadi. Bilbao, urriaren 3a.

*Garapen ekonomikotik giza garapenera.* Nazioarteko lankidetzari buruzko ikastaroa. Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola. Vitoria-Gasteiz, otsailaren 22a.

*Giza garapenaren kontzeptua.* Lankidetzari eta garapenari buruzko ikastaroa. Mugarik Gabeko Ingeniaritza eta Ingeniaritza Eskola. Bilbao, martxoaren 2a.

*Garapenerako lankidetzaren erronkak.* Ikastaroa: "Garapena eta lankidetzaren solidarioa". Gizarte Laneko Eskola. Vitoria-Gasteiz, irailaren 28a.

*Garapenerako Hezkuntzako Modulua.* Garapenerako lankidetzari buruzko ikastaroa. EHUko ISF. Vitoria-Gasteiz, otsailaren 28a. Garapen, Lankidetzaren eta Teknologiarari buruzko XIII. Mintegia. EHUko ISF. Bilbao, martxoaren 16a. EHUko IFS. Bilbao, urriaren 15a.

*Garapenerako Hezkuntzako Modulua.* Ikastaro monografikoak: garapenerako lankidetzari buruzko ikastaroa. Garapenerako Lankidetzako Bulegoa eta Hegoa. EHU. Donostia-San Sebastián, urriaren 16a.

*Garapenerako Hezkuntzako Modulua.* Ikastaroa: "Hezkuntza, gizartearen eraldatzeko tresna". CICODE. Granadako Unibertsitatea. Granada, urriaren 22a.

*Lankidetzaren deszentralizatuko jarduketaren arlo nagusiak.* Modulua. Lankidetzaren deszentralizatuari buruzko on line ikastaroa. Unibertsitate Jaume I. Azaroaren 2tik 8ra.

*Proiektuen plangintza eta proiektuen ebaluazioa.* Garapen, Lankidetzaren eta Teknologiarari buruzko XIII. Mintegia. Mugarik Gabeko Ingeniaritza.

*Garapen eta nazioarteko lankidetzarako sarrera.* Garapenerako lankidetzari buruzko ikastaroa. ISF. Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsaila.

*Lankidetzaren eraldatzailerako beste garapen bat.* Garapenerako lankidetzari buruzko ikastaroa. Vitoria-Gasteiz, 2012ko urria.

*Garapenari buruzko ikuspegiak: modernizazioetik giza garapenera.* Giza garapen eta lankidetzarako teknologiarari buruzko ikastaroa. ISF. Donostia-San Sebastián, 2013ko martxoa.

*Garapen eta nazioarteko lankidetzarako sarrera.* Garapenerako lankidetzaren solidarioari buruzko ikastaroa. FICE. Donostia-San Sebastián, 2012ko azaroaren 12a. Psikologia Fakultatea. Donostia-San Sebastián, 2012ko urria.

## ✓ Hegoako irakasleek emandako hitzaldiak eta tailerrak

*Mikrofinantzak eta garapena.* Mahai-inguruko hitzaldia. Salamancako Unibertsitatea, urtarrila.

*Lankidetzaren deszentralizatua: erreferentziako esparrurantz.* Nazioarteko Lankidetzari buruzko I. Foro Arabarra. Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekaina.

*Lankidetzaren praktikak: beharrezkoa den aurretiazko prestakuntza.* Mintegia: "Garapenerako hezkuntzaren unibertsitate-prestakuntza". Hegoa eta EHUko Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaritza. Bilbao, maiatzaren 25a.

*Emantzipazioaren subjektutza hartutako mugimendu sozialetarako hurbilketa.* Bloke honetako hitzaldia: *Rethinking social movements de la*

*Conferencia Internacional From Social to Political. New forms of mobilization and democratization.* Bilbao, otsailaren 9a eta 10a.

*Alternativas na loita contra a pobreza.* Unibertsitateko Udako ikastaroa, 2012. Xornadas: "Pobreza e muleres. A cooperaci3n ao desenvolvimento desde a perspectiva de x3nero". Vigoko Unibertsitatea eta Esku Batuak. Vigo, irailaren 5etik 7ra.

*Garapena, garapen ostekoa, azpigarapena eta garapen txarra.* UBISS (University of Barcelona International Summer School). "Aldaketa soziala eta lankidetzaren XXI. mendean". Bartzelona, uztailaren 10a.

*Giza garapenaren dimentsio kolektiboak: berdintasuna eta iraunkortasuna. 2011ko giza garapena. Faktore soziokulturalak eta ingurumena txostenaren aurkezpena mahai-inguruan.* UNESCO Etxea. Getxo-Bizkaia, otsailaren 29a.

*Degrowth and Buen Vivir: debates on the post-development in Europe and Latin America.* Kaliforniako Unibertsitatea. San Diego, 2012ko maiatzaren 27a.

*GGKEak eta garapenerako lankidetzaren erronka berriak.* GGKE-etako Koordinakunde Autonomikoen Hamargarren Topaketako hitzaldia. Bilbao, azaroaren 24a.

*Garapenerako lankidetzari buruzko galderak eta arazoak.* Hausnarketarako jardunaldia: "Garapenerako lankidetzaren krisia eta Euskadin daukan eragin berezia". Hegoa Institutua eta Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak. Donostia-San Sebastián, abenduaren 13a.

*Erresistentzia zibil baketsurako eskubidea.* Hitzaldia. Giza eskubideei buruzko 30. ikastaroa, 2012. Institut de Drets Humans de Catalunya. Bartzelona, martxoaren 20a.

*Umeen Eskubideei buruzko Konbentzioaren ezarpen larrialdietan.* Hitzaldia. UNICEFen Nazioarteko XIII. Mintegia. UNICEF eta EHU. Bilbao, martxoaren 1a.

*Aldaketarako prozesuak, krisiari aurre egiteko estrategiak eta ekonomia sozial zein solidarioko ekimenetako ikaskuntzak.* Komunikazioa. Ekonomia Sozialleko Ikertzaileen XIV. Jardunaldi Nazionalak. CIRIEC. Donostia-San Sebastián, ekainaren 20tik 22ra.

*Ekonomia sozial eta solidarioaren ekarpenak Ekuadorren Sumak Kawsayrantz (bizimodu ona) egindako bidean: zenbait kontzepturen azalpena.* Komunikazioa. Garapeneko Ikaskuntzen Nazioarteko I. Biltzarra. Santander, azaroa.

### ✓ Hegoako taldearen lankidetzak beste ekitaldi batzuetan

*Nazioarteko krisia eta lankidetzaren arkitektura berria.* Mugarik Gabe erakundeak 2012ko urriaren 23an eta 24an antolatutako jardunaldietan, honako hitzaldi hau aurkeztu zen: *Lankidetzaren eraldatzailea mugimendu sozialak sendotzeko prozesuaren bidez.*

*Garapena berriro zehaztea. Lankidetzaren giza eskubideak eta nazioz harandikoko enpresak.* OMAL-Paz erakundeak 2012ko ekainaren 12an eta 13an Duintasuna erakundearekin eta 2015 eta gehiago Plataformarekin batera antolatutako mintegia. Honako hitzaldi honen aurkezpena: "Nazioarteko lankidetzarako agenda berria. Lankidetzaren eta mugimendu sozialak".

Hegoako Hezkuntza Taldeak behar besteko laguntza eman du, Nazioarteko Amnistiak egindako "Giza eskubideen arloko hezkuntza Espainian. Ikasgaia baino zerbait gehiago" txostena berrikusteko orduan. [www.es.amnesty.org/uploads/media/Informe\\_Educacion\\_par\\_la\\_Ciudadania.pdf](http://www.es.amnesty.org/uploads/media/Informe_Educacion_par_la_Ciudadania.pdf)

*Herritartasun globalerako hezkuntza unibertsitatean: Europako Goi Hezkuntzaren Eremuan unibertsitatearen eta GGKE-en arteko lankidetzaren jarduketaren egokiak antzematea.* Mintegia. Kordoba, urriaren 18a eta 19a. Antolatzailea: Garapen eta Lankidetzarako ETEA Fundazioa. Loyola Andalucia Unibertsitatea.

*Mobilizazio soziala, garapenerako hezkuntzaren dimentsio estrategikoa. Iparraldearen eta hegoaldearen ikuspegitik, zenbait esperientzia aztertzea herritartasun globalaren eta eskubideetan oinarritutako ikuspuntuaren esparruan.* Mintegia. Valentzia, azaroaren 7a eta 8a. Antolatzailea: Garapen, Lankidetzaren eta Etikako Ikaskuntzen Taldea. Valentziako Unibertsitate Politeknikoa.

*TREES: Training in Rennes about Education in Environment and International Solidarity.* Ekainaren 11tik 17ra, CRIDEVek (Centre Rennais d'information pour le développement et la solidarité entre les peuples) Rennesen antolatu zuen garapenerako hezkuntzaren eta ingurumeneko hezkuntzaren arloan lan egiten duten gazte-erakunde europarren arteko truke eta prestakuntzarako astea. Hegoak Talde Pedagogikoan parte hartu zuen Europako beste erakunde batzuekin, baita topaketa bera antolatzeko prozesuan ere.

*Irakasle Eskolako ikasleen prestakuntzarako programa.* Ikastetxeetako harrera-planei eta eragile sozialek eskolan daukaten zereginari buruzko saioa. Vitoria-Gasteiz, urtarrilaren 30a.

*Garapenerako Irakasleen III. Topaketa Nazionala.* Madril, azaroaren 17a eta 18a. Antolatzailea: AECID. 2 mahai-ingurutan egindako agerraldia eta lan-talde baten dinamizazioa.

*Genero-arraioengatik jazarritako pertsonen asilo-eskubidearen inguruko prozesuaren sistematizazioa.* Genero-arraioengatik jazarpenerako esperientziei buruzko hausnarketa eta ikaskuntza kolektiboa sortzeko asmoz, Euskadiko CEAREk sistematizatorako prozesu hau bultzatu du Incyderen laguntzaz, eta Hegoak beste erakunde batzuekin parte hartu du bertan.

Hegoak, Madrilgo FERE-CECAren eta InteReden laguntzaz, garapenerako hezkuntzari eta ikerketari buruzko nazioarteko *Education Global Research* aldizkariaren 2. alearen aurkezpena aurkeztu zuen. Ekitaldia ekainaren 21ean egin zen Zubiria Etxean.

*Iparraldean eta hegoaldean garapen alternatiboa eratzea.* Lan-mintegi hau Alboan erakundeak antolatu zuen, iparraldean eta hegoaldean garapen-alternatiben eraketarako proposamen eta gaitasunen sorreran lan egiten duten esperientziak harremanetan jartzeko; iparraldeko eta hegoaldeko esperientzia praktikoetatik gurekin lan egiten duten erakunde eta taldeetan gaitasunak sortzeko ezarri beharreko aliantzei buruz hausnartzeko; eta nazioarteko lankidetzak proposamen alternatiboen eraketarako sinergien sustapenean daukan ekarpena sakonago aztertzeko. Hegoak "Gaitasunen sorrera, nazioarteko lankidetzaren zeregina" mahaia

dinamizatu zuen, eta honako hauexek parte hartu zuten bertan: Esnetik, Suyusama esperientzia eta Mondragon Unibertsitateko Lanki Institutua. Deustuko Unibertsitatea, irailaren 28a.

### ✓ **Jakintza kritikoa gizarteratzeko beste jarduerak**

*Laguntzaren arkitektura berriari eta generoaren ikuspegitik dauzkan inplikazioei buruzko bibliografia komentatuaren eta informazio-baliabideen inguruko buletinak.* Bost buletineko bilduma honek honako hauexen artean informazioa gizarteratzea eta jakintza kritikoa sortzea dauka helburu: hezkuntza kritikoa, garapenerako lankidetzaren eta elkartasunaren arlotik gizarteraren eraldaketarako lana garatzen duten pertsonak, mugimendu sozialak, GGKEak, ikerketa-zentroak, administrazio publikoak... Buletin bakoitzean, gai zehatza jorratzen da, baliabide guztiak fitxa-formatuan aurkezten dira eta Interneteko kasuan kasuko esteka ere azaltzen da. Hori dela eta, testu oso oso erraz eskuratu eta jaitsi daiteke. Buletinak hementxe daude eskuragarri: [www.hegoa.ehu.es/es/sensibilizacion/boletin\\_de\\_recursos\\_de\\_informacion\\_sobre\\_genero\\_y\\_nueva\\_arquitectura](http://www.hegoa.ehu.es/es/sensibilizacion/boletin_de_recursos_de_informacion_sobre_genero_y_nueva_arquitectura)



## 3. Ikerketarako jarduerak

Aurten, indarrean dagoen plan estrategikoan ikerketarako zehaztutako lerroak eta taldeak sendotzen jarraitu dugu. Oro har, sei ikerketa-lerro handiren inguruan egituratu da lana: tokian tokiko giza garapena; gatazkak, bakea eta garapena; feminismoa; nazioz haraindiko enpresak eta garapena; garapenerako eta nazioarteko lankidetzarako politiken azterketa eta ebaluazioa; eta mugimendu sozialak.

### Ikerketa-taldeak

#### ✓ Tokian tokiko giza garapena

2012. urtean, lan-taldeak sendotu dira, eta "gaien egoerak" lantzen ari dira, tokian tokiko giza garapenaren ikuspegiaren (TGG) esparru kontzeptualaren oinarri moduan. Proposamen horretan lan egiteko orduan, gainera, garapenaren ikuspegi alternatiboak kontuan hartu ditu Hegoak. Honako hauexek dira lantzen ari diren "arazoaren" sei "egoerak": TGG aztertze esparrua; generoa eta TGG; ekologia eta TGG; ekonomia sozial zein solidarioa eta TGG; partaidetza eta TGG; eta tokian tokiko zein maila globaleko harremanak TGG prozesuetan. Hasierako zirriborroak mintegi tematikoetan aurkeztu eta eztabaidatu dira, atzera elikatzeko eta esparru teoriko bateratua izateko. Agiri horiek, hain zuzen ere, 2013ko bigarren sei hilekoan TGGri buruz egingo den nazioarteko mintegiaren aurretiko hausnarketa-prozesurako oinarri moduan erabiliko dira.

Bestetik, Afrikako errealitatea tokian tokiko giza garapenaren erreferentziako esparruaren eraketan integratzeko eta zabaltzeko asmoz, Mozambikeko giza garapenerako prozesuetako tokian tokiko eta maila globaleko elkarmenpekotasunei, gobernantzari eta partaidetzari buruzko ikerketa ari da garatzen. Era berean, Sahara Azpiko Afrikako giza garapenari eta generoari buruzko mintegiak ere antolatu dira, baita Afrikako kulturei, nortasunei, garapenari eta lankidetzari buruzkoak ere.

Lan-prozesu hori guztia Eusko Jaurlaritzako 2011ko FOCAD deialdian Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak babestutako ikerketa-proiektu honen esparruan garatzen da: "Tokian tokiko giza garapenaren ikuspegiaren arabera, prestakuntzako tresnen esparru sistematizatua zabaltzea eta tresna horiek tokian tokiko eragileetan nahiz nazioarteko lankidetzan ezartzea". Era berean, Hegoara atxikitako eta ikerketa-lerro honetako jardueretan inplikaturako PDI gehienek Eusko Jaurlaritzak 2010-2012ko hiru urtekoan aitortutako *Giza Segurtasunari, Tokian Tokiko Giza Garapenari eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Ikerketa Taldearen* parte hartzen dute.

Parte-hartzaileak: Alfonso Dubois, Eduardo Bidaurratzaga, Luis Guridi, Mertxe Larrañaga, Jokin Alberdi, Yolanda Jubeto, Patxi Zabalo, Mikel Zurbano, Roberto Bermejo, Unai Villalba, Xabier Gainza, Juan Carlos Pérez de Mendiguren, Gonzalo Fernández, Maite Fernández, Alicia López de Munain, Gloria Guzmán, Carlos Puig, Marisa Lamas, Iñigo Aldekozea eta Yenifer García.

#### ✓ Gatazkak, bakea eta garapena

Batez ere, Eusko Jaurlaritzak 2010-2012ko hiru urteko aitortutako *Giza Segurtasunari, Tokian Tokiko Giza Garapenari eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Ikerketa Taldearen* esparruan garatzen da ikerketa-lerro hau.

Biltzarren eta azterketarako, eztabaidarako zein prestakuntzarako beste eremu batzuen bidez, zenbait lan aurkeztu dira gatazken, bake-prozesuen, garapenaren eta nazioarteko lankidetzaren arteko elkarlotura teoriko eta praktikoari buruz. Horrez gain, prestakuntza metodologikoari ere eman zaio jarraipena *Gatazkei, Bakeari eta Garapenari buruzko Mintegi Iraunkorraren* bitartez. Bertan, hain zuzen ere, gai horiei buruzko tesiak egiten ari diren doktoregaiek parte hartzen dute.

Esparru horretan, barne-prestakuntzak eta eztabaida teoriko zein metodologiak antolatu dira, baita zenbait jarduera ireki ere; esate baterako, Washington DCko International Center on Non-violent Conflictekin (ICNC) antolatutako *Nonviolent Force in Political Change. Power and Dynamics of Civil Resistance* mintegia.

Era berean, 2012. urtean, Eusko Jaurlaritzako 2010eko FOCAD proiektu-deialdian babestutako ikerketa-proiektu hau garatzen jarraitu dugu: *Gerraosteko zaharberrikuntza eta bakegintza giza eskubideen zein generoaren ikuspegietatik: justizia, kalte-ordain eta oroimen historikorako eskubidea*.

Proiektu horren esparruan, Euskal Fondoaren funtsezko babesari esker, 1975. urtetik gaur egunera arte Mendebaldeko Saharan giza eskubideen arloan gertatutako urraketei buruzko ikerketa egin da. Horren ondorioz, 1.000tik gora orrialdeko eta bi aleko argitalpena kaleratu da: *Oroimenaren oasia. Oroimen historikoa eta giza eskubideen urraketak Mendebaldeko Saharan*. Argitalpen hori Carlos Martín Beristainek (ikertzaile nagusia) eta Eloísa Gonzálezek egin dute, eta gatazka armatupean egon diren beste herrialde batzuetako egiaren batzordeetan erabilitako metodologiaren arabera egindako landa-lanaren edukia azaltzen da bertan (261 biktimari egindako elkarrizketa sakonak). Era berean, honako liburu honen argitalpena ere izan da ikerketa-proiektu horren emaitzetako bat: *Ni olvido, ni silencio. Tribunal de Conciencia contra la violencia sexual hacia las mujeres durante el conflicto armado en Guatemala*. Bertan, gatazkan zehar emakumeen aurka garatutako krimen sexualak epaitzeko asmoz, 2010. urtean Guatemalako zenbait emakume-erakundek egindako Kontzientzia Auzitegiaren esperientziaren berri ematen da.

Argitalpen hau Guatemalako Emakumeen Batasun Nazionalarekin koordinatu da (UNAMG), eta auzitegian aurkeztutako peritu-txostenak nahiz lekukotasunak agertzen dira bertan. Azkenik, proiektu beraren esparruan, 2012. urtean honako gai hauei buruzko ikerketarako landa-lana garatu da (banakako elkarrizketa sakonak eta bi talde nagusiri egindako

elkarrizketa sakonak): emakumeek giza eskubideen defentsan duten zeregina eta oroimen historikoak Salvadorko gatazka armatuan garatutako lana.

Parte-hartzaileak: Karlos Pérez de Armiño (ikertzaile nagusia), Irantzu Mendia, Iker Zirion, Gloria Guzmán eta Carlos Martín Beristain.

### ✓ **Garapenerako eta nazioarteko lankidetzarako politiken azterketa eta ebaluazioa**

Ekerketa-lerro honetan, lankidetzan eta garapenari buruzko ideietan gertatutako aldaketak aztertzen dira. Horrez gain, eragileek lankidetzarako programak eta politikak diseinatzean eta abian jartzean nolako ondorioak dituzten aztertzen da, elementu berriak lortzeko eta politika horien azterketan nahiz ebaluazioan aurrera egiteko.

2012an, euskal lankidetzaren ikuspegi historikoa kontuan hartzen duen ikerketa amaitu da, eta gaztelaniaz zein euskaraz argitaratu da: "Euskadiko garapenerako lankidetzaren 25 urteak. Erakunde publikoen politika eta lankidetzaren euskal sistema". Argitalpenaz gain, lan honen esparruan, zenbait bilera eta mintegi ere egin ziren inplikaturako instituzioekin eta GGKE-ekin, sortutako gaiak gizarteratzeko eta aldaketa-une hauetan lankidetzarako bide berriak bilatzeko asmoz. Arlo honetan bertan, Euskal Fondoarekin udal-lankidetzari buruz egindako azterketa amaitu da, eta Euskadiko 31 udal adierazgarriren kasua sakon aztertzea izan da helburu nagusia.

Lerro honetan garatutako lanari esker, hitzaldiak aurkeztu eta artikuluak argitaratu dira, eta, 2012. urtean, honako hauexek izan dira bertan jorratutako gaiak: nortasuna eta lankidetzaren zein eztabaida berrienen zilegitasuna, generoaren ikuspegi politika horietan kontuan hartzeko prozesua edo lankidetzaren deszentralizatuaren egoera.

Parte-hartzaileak: Koldo Unceta (ikertzaile nagusia), Iratxe Amiano, Jorge Gutiérrez, Irati Labaien, María José Martínez, Michel Sabalza, Unai Villena eta Idoie Zabala.

## ✓ Mugimendu sozialak

2012. urtean, lerro honetan egindako lanari esker, lau arlotako aurrerakuntzak lortu dira funtsean: ikerketako lehenengo emaitzak lortzea; truke eta lanerako zehaztutako eremuak sendotzea eta finkatzea; garatutako lana zenbait arlotan erkatzea, gizarteratzea eta ezartzea; eta garapen-bidean dagoen ikerketa-lerro honetako edukiekin lotutako ikastaro espezializatua abian jartzea.

Lehenengo arloari dagokionez, honako proiektu honetan aurreikusitako jardueren garapenari eman zaie jarraipena: *Garapenerako lankidetzaren agenda eraldatzailerantz aurrera egitea eta, horretarako, mugimendu sozialak indartzea. 1. fasea*. Proiektua Eusko Jaurlaritzako 2010eko FOCAD proiektu-deialdiaren bidez finantzatu da, eta zehaztutako bi lan-ardatzen inguruan lortu dira emaitzak. Lehenengo eta behin, mugimendu sozialek emantzipaziorako duten ahalmenari buruz hausnartu da, eta aurreikusitako bi lan-koadernoetako bat dago prest: Zesar Martínezen, Beatriz Casadoren eta Pedro Ibarren *Mugimendu sozialak eta emantzipaziorako prozesuak*. Bigarrenez, mugimendu sozialak indartzeko lankidetzaren alternatiboaren agenda landu da, eta horren inguruko lehenengo argitalpena kaleratu da: *Mugimendu sozialak eta lankidetzaren Eztabaidarako ideiak*. Bertan, honako hauexen artikulua agertzen dira: Ana Esther Ceceña, Fernando Fernández, Gustavo Duch, Miriam Nobre, Sarah de Roure, Janaina Stronzake, Judite Stronzake, Daniel Von Freyberg, Lorena Cabnal eta Jesús González. Bi ardatzek bigarren argitalpena oso aurreratuta dutenez, 2013ko lehen seihileko-rako egongo da prest.

Bigarrenez, lerroaren inguruko lan eta trukeerako eremuak sendotu eta indartu dira, baina, batez ere, ikerketa-taldea bera eta *Mugimendu Sozialen eta Lankidetzaren Plataforma*. Ohiko metodologia erabilienez, mugimendu sozialak prozesu osoko subjektutzat hartzen dira, eta garrantzi handia ematen zaie lan kolektiboari zein partaidetzari. Horrela, bada, honako hauexek funtsezko zeregina izan dute aurten garatutako lan guztian: Hegoara atxikitako irakasleek, Hegoako langileek eta Vía Campesina, Emakumeen Mundu Martxako nahiz beste erakunde batzuetako kideek osatutako ikerketa-taldea;

eta Mugimendu Sozialen eta Lankidetzaren Plataforma. Azken horretan, honako hauexek parte hartzen dute: Mugarik Gabe, Mundubat, Bakea eta Duintasuna, Herriarte, VSF Herrien bidezko elikadura, Bizilur eta Euskadi Kuba.

Hirugarrenez, ikerketa-prozesua gizarteratzea eta ezartzea lehentasunezkoa izan denez, honako hauexek antolatutako zenbait gune, foro eta jardunalditan aurkeztu da: Mugarik Gabe, Agora Nord-Sud Plataforma, OMAL, Bakea eta Duintasuna eta 2015 eta gehiago Plataforma, besteak beste.

Azkenik, 2012ko ekainean, Bizkaiko EHNErekin batera antolatutako ikastaro espezializatua lehenengo edizioa egin zen: *Globalizazioa, emantzipaziorako agenda, lankidetzaren kritika eta mugimendu sozialak*. Bertan, Guatemala, Mexiko, Honduras, Paraguay, Tunisia nahiz Brasillgo zenbait mugimendu sozialetako kideak diren zortzi lagunek parte hartu zuten, eta hiru eduki-ardatz garatu ziren: a) modernotasun kapitalista eta patriarkalaren berrikuspen kritikoa; b) emantzipaziorako aukerak eta agendak: mugimendu sozialen zeregin estrategikoa; eta c) lankidetzaren eraldaketarako tresna: azterketa kritikoa eta aurreikuspen berriak.

Parte-hartzaileak: Amaia del Río, Andrés Cabanas, Beatriz Casado, Daniel Von Freyberg, Efrén Areskurrinaga, Francisco Hamlet Estrada (Mexikoko LVC), Gonzalo Fernández, Itziar Hernández, Javier González, Juan Hernández, Juana Mercedes Cruz (Peruko MMM), Luis Miguel Uharte, Pedro Ibarra, Pedro Ramiro, Silvia Piris, Xarles Iturbe, Yolanda Jubeto eta Zesar Martínez.

## ✓ Transnazionalak eta garapena

Aurreko urteetan bezala, ikerketa-lerro honetako jarduerak beste ikerketa-zentro batzuekin koordinatu dira; esate baterako, Latinoamerikako Multinazionalen Behatokiarekin (OMAL). 2012. urtean, gainera, *Diccionario crítico de empresas transnacionales. Claves para enfrentar el poder de las grandes corporaciones* argitaratu da, eta bertan argi eta garbi nahiz zehatz-mehatz garatzen diren oinarriko hirurogei kontzeptuak oso lagun-

---

garriak dira, globalizazioaren aroko eragile nagusietakoaren funtzionamendua ulertzeko orduan: nazioz haraindiko enpresak.

Bestetik, 2012an, *Euskal sindikalismoaren nazioz gaindiko ekintzari* buruzko ikerketari eman zitzaion jarraipena. Ikerketa honen abiapuntuan, oso kontuan hartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko lan-harremanen oreka lortzeko ezinbestekoa dela euren esfera globala egokitzea eta berriro zehaztea. Ekonomia, inbertsioak, lan-merkatua eta kapitala nazioz haraindikoak dira gaur egun, eta gauza bera egin beharra dago eskubide sozialetan, nazioarteko araudietan eta ekintza sozial nahiz sindikalean. Nazioarteko krisi finantzarioak eragina izan du ekoizpen-ekonomia nazionaletan. Hori dela eta, egonkortasun sozialaren eta laneko harremanen orekaren dimentsio globala da lan honetako ikergaia. Arrazoi beragatik, Latinoamerikan euskal kapitala eta espainiarra ere badaudenez, tresnen globalizazioan sakondu beharra dago, eskubide sozialen alde, hau da, Euskadiko eta Espainiako sindikatuen nazioarteko ekintzaren alde erabili daitezkeelako.

Landa-lana egin, datuak aztertu eta arlo horretako beste ikertzaile zein ekintzaile batzuekin ikerketa-mintegiak garatu ondoren, lerro honetako ikerketa-talde arduradunak argitalpenaren azken idazketari ekin dio, eta azken fasean dagoela esan beharra dago. Hona hemen bere izenburua: *“Latinoamerikako nazioz haraindiko enpresak. Mugimendu sozial nahiz sindikalaren azterketa eta proposamenak”*. Lan horretan, hain zuzen ere, zenbait ekarpen egin dituzten 13 lagunek parte hartu dute.

Parte-hartzaileak: Mikel de la Fuente Lavin (ikertzaile nagusia), Juan Hernández Zubizarreta, Koldo Irurzun, Efrén Areskurrinaga eta Andrea de Vicente. Laguntzaileak: Pedro Ramiro eta Erika Gonzalez.

### ✓ **Feminismoa eta garapena**

Ikerketa-lerro hau berria da Hegoan, eta 2012an lortutako aurrerakuntzek funtsezko lotura dute honako arlo hauetan aurrera egiteko helburuarekin: ikerkuntza feministarako metodologietako prestakuntza;

zenbait herrialdetako emakume-erakundeek garatutako ikerketa-prozesuetarako laguntasuna eta babesa; eta garapenaren nahiz lankidetzaren arloan ikuspegi feminista kontuan hartzen duten azterlan eta ikerlan berezien diseinua. Horrek guztiorrek, gainera, zerikusi estua dauka gatazken, bake-prozesuen eta garapenaren arteko loturaren gaiarekin.

Lehenengo eta behin, nazioarteko mintegi hau egin zen 2012. urtean: *Giza Eskubideen Ikerketa eta Ekintza: ikuspegi feminista eta metodologikoak oroimenerako, justiziarako eta kalte-ordainerako prozesuen aurrean*. Bi egunetan, arlo horretako ikertzaile eta ekintzaile nabariek parte hartu zuten bertan (Brinton Lykes, Jenny Pearce, Julie Guillerot eta Gaby Oré Aguilar).

Bigarrenez, ikuspegi feminista kontuan hartzen duten ikerketa-prozesuetarako laguntasunari dagokionez, 2012an nabarmendu behar da emakumeen giza eskubideek Kolonbiako gatazka armatuan jasandako urraketen lekukotasunak biltzeko erabilitako metodologiaren sistematizazioa sustatu dela betiko moduan. Gainera, Emakumeen Ibilbide Baketsua izan da prozesu horretako koordinatzailea. Erakunde horrek emakumeen aurkako 1.000 inguru indarkeria-kasu dokumentatu ahal izan ditu, eta bere ikerketari buruzko azken txostenak herrialdeko etorkizuneko Egiaren Batzordearen eraketa sustatzea du helburu, emakumeen esperientziak kontuan hartuta. Duela urte askotatik, UNAMG, ECAP eta MTM erakundeek Guatemalako gatazka armatuan bortxaketa sexualak jasan dituzten emakumei laguntzen diete, eta, horren erakusgarri, gorago aipatutako argitalpena kalera tu da: *Ni olvido, ni silencio*. Izan ere, aurkezpen publikoa egin da Guatemalan, argitalpen horren zabalbidea bultzatzeko eta gaur egun emakumeen erakundeak herrialde horretako ohiko justizia-sistemaren aurrean sustatzen ari diren prozesuetan tresna moduan erabiltzeko.

Hirugarrenez, ikuspegi feministatik bakarrik disainatutako ikerketa-proiektuei dagokienez, 2012an honako proiektu hau aurkeztu zen: *“Salvadorko gatazka armatuko oroimen historikoari eta generoari buruzko ekintza, ikerketa eta prestakuntza indartzeko lankidetzak”*. EHUKo Lankidetzak Bulegoak proiektua onartu du, eta 2013. urtean beteaziko da honako hauexen laguntzaz: Salva-

dorko Unibertsitateko Ikaskuntza Antropologiko eta Arkeologikoen Institutua (IEHAA), Bradfordeko Unibertsitateko Bake Ikaskuntzen Saila, giza eskubideen erakundeak eta erakunde feministak.

Parte-hartzaileak: Irantzu Mendia Azkue, Gloria Guzmán eta Carlos Martín Beristain.

## Ikerketarako beste jarduera batzuk

"Giza Eskubideen Ikerketa eta Ekintza: ikuspegi feminista eta metodologikoak oroimenerako, justiziarako eta kalte-ordainerako prozesuen aurrean" nazioarteko mintegiaren antolakuntza bateratua. Bilbao, 2012ko otsailaren 16a.

## Doktoretzako tesiak

### ✓ Matrikulatutako doktoretza-tesiak

*Estudio del necesario cambio del modelo energético convencional, centralizado, basado en la competencia, vulnerable e insostenible a otro basado en energías renovables, sostenible, descentralizado, cooperativo y mayormente basado en la electricidad.* Amaia del Toro. Tesiko zuzendaria: Roberto Bermejo.

*Análisis de los mecanismos de desarrollo limpio (MDL) y su efecto en el desarrollo comunitario en el distrito de Aguadulce en Panamá. Año 1990-2010.* Jaime Manuel González. Tesiko zuzendaria: Roberto Bermejo.

*Kultur industriak globalizazioaren kontestuan: diskogintzaren industriaren kasua.* Gaizka Insunza. Tesiko zuzendaria: Mikel Zurbano.

*Conceptos y elementos para una economía vasca descentralizada y con criterios de sostenibilidad.* Rosa Lago. Tesiko zuzendaria: Roberto Bermejo.

*Bases para la creación de economías y ciudades descentralizadas, autoabastecidas y sostenibles. Caso de estudio: Vitoria-Gasteiz.* Xabier Marredo. Tesiko zuzendaria: Roberto Bermejo.

*La generación (construcción) de capacidades para el desarrollo territorial. Una aproximación metodo-*

*lógica partiendo del aprendizaje de experiencias en América Latina.* Pablo Santiago Costamagna. Tesiko zuzendariak: Mikel Zurbano eta Miren Larrea.

*Desarrollo Rural y turismo en el País Vasco.* Itziar Sapsootham Arebalo. Tesiko zuzendaria: Juan Cruz Alberdi.

*La comunicación en la base del empoderamiento para un desarrollo alternativo en colectivos de Euskadi y Uruguay.* Federico Abreu Silveira. Tesiko zuzendaria: M<sup>a</sup> Ángeles Díez.

*Propuesta de cambio en el sistema fiscal para dirigir la economía hacia la sostenibilidad medioambiental.* Jesús Olea. Tesiko zuzendaria: David Hoyos.

*Análisis de proyectos de cooperación de tipo tecnológico mediante el enfoque de capacidades para el desarrollo humano: El modelo de las tecnologías para la libertad.* Joseba Saiz de Murieta. Tesiko zuzendariak: Amaia Arrinda eta Alejandra Boni.

*El sistema español de pensiones: revisión crítica de los elementos comunes para el cálculo de pensiones contributivas (normas sobre tope máximo de pensiones, cuantías mínimas y revalorización de pensiones).* Elisabet Errandonea Ulazia. Tesiko zuzendariak: Mikel de la Fuente eta Juan Hernández.

*Autogestión energética comunitaria como estrategia de sostenibilidad.* Iñigo Bordagary. Tesiko zuzendaria: Roberto Bermejo.

*La igualdad de género en la evaluación del impacto: una aplicación a las políticas de lucha contra la pobreza.* Sonia Carrasco. Tesiko zuzendaria: M<sup>a</sup> Ángeles Díez.

## Ikerketarako sareetako partaidetza

Hegoako Prestakuntza eta Ikerkuntza Unitatea (UFI). Garapenari buruzko ikaskuntzak. Ikerketaren arloan, Prestakuntza eta Ikerkuntza Unitatea (UFI) eratu da EHU bertan, eta honako hauexen partaidetza dauka: EHUko bi unibertsitate-institutu (Hegoa Institutua eta GEZKI Ikaskuntza Kooperatiboen Institutua) eta hiru ikerketa-talde sendo. Euretako bitan, Hegoa Institutuko ikertzaileek lan egiten dute; eta, hirugarrenean, Soziologia I Saileko langile ikertzaileek.



---

Garapenari buruzko Ikaskuntzen Sare Espainiarra (REEDES). Diziplina anitzeko sare akademikoa da, eta garapenaren zein nazioarteko lankidetzaren arloko gaietako irakaskuntzan nahiz ikerkuntzan dago espezializatuta. Hona hemen bere helburuak: garapenari buruzko eta garapenerako azterlanetan oinarritzko ikerketa, ikerketa aplikatua, diziplina anitzeko prestakuntza eta euren kalitatea sustatzea; bazkideen arteko lankidetzeta eta sareko lana bultzatzea eta, horretarako, diziplina anitzeko jardura bateratuak garatzea irakaskuntzaren nahiz ikerkuntzaren esparruan; eta administrazio publikoei, sektore pribatuari, nazioarteko erakundeek zein komunikabideei ikerkuntzako eta prestakuntzako emaitzen berri ematea. 2012. urtean, Garapeneko Ikaskuntzen Nazioarteko I. Biltzarra antolatu zen. Garapeneko ikaskuntzen erronkak. Kantabriako Unibertsitatea, 2012ko azaroaren 14tik 16ra.

Afrikako Ikaskuntzen Taldea (GEA). Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.

Generoko Aurrekontuen Sare Europarra (Gender Budgeting European Network). Yolanda Jubetok parte hartzen du bertan.

Munduko Ekonomiaren Elkarte (SEM).

Garapenerako Nazioarteko Elkarte (SID).

World Economics Association (WEA).

Garapenari buruzko Azterketa Kritikoen Aliantza Latinoamerikarra.

Eusko Ikaskuntza (Ekonomia Saila).

### **Nazioarteko ordezkariak eta lantaldeetako partaidetza**

*Revista Iberoamericana de Estudios de Desarrollo* Argitaratzeko Kontseiluko kidea, Zaragozako Unibertsitatea eta REEDES, 2011. urteaz geroztik. Karlos Pérez A. de Armiño.

### **Irakasle bisitariak**

Ania Pupo Vega. Kubako Holguingo "Oscar Luce-ro Moya" Unibertsitatea. 2011ko azarotik 2012ko

ekainera. Doktoretzaren aurretiko egonaldia, doktoretzako tesi hau prestatzeko: *Desarrollo y género en los espacios rurales del oriente de Cuba*.

Prudencio Mochi Alemán. Diziplina Anitzeko Ikerketen Eskualde Zentroa. Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoa. 2012ko maiatzetik uztaileira. Ikerketako proiektuak: *Lurraldeko pentsaera estrategikorako zentroak*. *Unibertsitateak lurraldeko toki-garapenerako oinarri moduan sortutako ereduak*. *Kluster teknologikoak, tokian tokiko garapenerako estrategia*.

Cristina Girardo Pierdomenici. Mexikoko Elkargoa. 2012ko maiatzetik uztaileira. Ikerketako proiektua: *Garapenerako hezkuntza eta pedagogia: eragileak eta estrategia*.



## 4. Argitalpenak

### ✓ Liburuak eta lan-koadernoak

CELORIO, Juan José; CELORIO, Gema; LÓPEZ DE MUNAIN, Alicia: "Garapenerako Hezkuntza Unibertsitatean ezartzeko Jardunaldiak: eztabaidarako ekarpenak". Hegoa, Bilbao. [www.hegoa.ehu.es/file/1292/Jornadas\\_ED\\_.pdf](http://www.hegoa.ehu.es/file/1292/Jornadas_ED_.pdf)

CELORIO Gema; LÓPEZ DE MUNAIN, Alicia (koord.): "Garapenerako Hezkuntza Unibertsitatean. Jardun eraldatzaileari buruzko hausnarketak". Hegoa, Bilbao. [www.hegoa.ehu.es/file/1289/ED\\_univ.pdf](http://www.hegoa.ehu.es/file/1289/ED_univ.pdf)

DE VICENTE, Andrea; DE LA FUENTE, Mikel; IRURZUN, Koldo; HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, Juan: "Subcontratación laboral, empresa transnacional y acción sindical" in "Latinoamerikako nazioz haraindiko enpresak. Mugimendu sozial eta sindikalaren jarduketan azterketa eta proposamenak", Hegoa, Bilbao.

DE VICENTE, Andrea; DE LA FUENTE, Mikel; IRURZUN, Koldo; HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, Juan: "En concreto: propuestas de intervención para la subcontratación laboral" in "Latinoamerikako nazioz haraindiko enpresak. Mugimendu sozial eta sindikalaren jarduketan azterketa eta proposamenak". Hegoa, Bilbao.

DEL RÍO, Amaia eta DEMA, Sandra (koord.): "Voces y saberes feministas: Hacia una agenda de cooperación emancipadora". Hegoa, Bilbao.

DÍEZ, María Ángeles; ETXANO, Iker; GARMENDIA, Eneko: "Evaluating governance and participatory processes in Natura 2000: Lessons learned and guidance for future prospects". Basque Centre for Climate Change (BC3). BC3 Working Papers Series 2012-09.

DÍEZ LOPEZ, María Ángeles; ETXANO, Iker; GARMENDIA, Eneko; PASCUAL, Unai; HOYOS, David; CADIÑANOS, José Antonio; LOZANO, Pedro José: "Towards a participatory integrated assessment approach for planning and managing Natura 2000 network sites". Basque Centre for Climate Change. BC3 Working Paper Series 2012-10.

DUBOIS, Alfonso: "New reference points for communicating violent conflicts: poverty and inequality and positions in the current debate on the causes of civil wars" in José Antonio Mingolarra, Carmen Arocena eta Rosa Martín Sabaris: "Violence and communication", Center for Basque Studies, University of Nevada, Reno, 71.-91. or.

ELIZONDO, Luis: "Guía metodológica para el desarrollo de Planes de Capacitación de los Gobiernos Autónomos Descentralizados, con enfoque de competencias laborales". PNUD. Quito.

GONZÁLEZ, Erika, HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, Juan eta RAMIRO, Pedro: "Diccionario crítico de empresas transnacionales. Claves para enfrentar el poder de las grandes corporaciones". Icaria, Bartzelona.

MANZANO-ARRONDO, Vicente: La universidad Comprometida. Hegoa, Bilbao. [www.hegoa.ehu.es/file/1230/Univ\\_comprometida.pdf](http://www.hegoa.ehu.es/file/1230/Univ_comprometida.pdf)

MARTÍNEZ, Zesar; CASADO, Beatriz; IBARRA, Pedro: "Mugimendu sozialak eta emantzipazioarako prozesuak", Lan Koadernoak, 57. zenb. Hegoa, Bilbao.

MENDIA, Irantzu eta GUZMÁN, Gloria (ed.): "Ni olvido, ni silencio. Tribunal de Conciencia contra la violencia sexual hacia las mujeres durante el conflicto armado interno en Guatemala". Bilbao, Hegoa; Guatemalako hiria, UNAMG.

PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos: "La metamorfosis de las guerras de Angola. Motivaciones, discursos y líneas de continuidad" in Ruiz-Giménez Arrieta, Itziar (ed.): "Más allá de la barbarie y la codicia. Historia y política en las guerras africanas". Bellaterra, Bartzelona, 101.-136. or.

PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos: "'Avaricia" y "agravios" en las guerras de Angola: su persistencia como obstáculos al proceso de rehabilitación" in Sanahuja, José Antonio (koord.): "Construcción de la paz, seguridad y desarrollo. Visiones, políticas y actores". Editorial Complutense, Madrid, 177.-200. or.

PIRIS, Silvia (k oordinaatzailea). Zenbait autoreren artean: "Mugimendu sozialak eta lankidetzak. Ezta-baidarako ideiak". Hegoa, Bilbao.

UHARTE, Luis Miguel: "Las multinacionales en el siglo XXI: impactos múltiples. El caso de Iberdrola en México y en Brasil". 2015 eta + Plataforma, Madril.

UNCETA, Koldo; AMIANO, Iratxe; GUTIÉRREZ, Jorge; LABAIEN, Irati; MARTÍNEZ HERRERO, María José; MALAGÓN, Eduardo; SABALZA, Michel; VILLENA, Unai; ZABALA, Idoye: "Euskadiko garapenerako lankidetzaren 25 urteak. Erakunde publikoen politika eta lankidetzaren euskal sistema". HEGOA-EHU. Bilbao.

### ✓ Artikuluak eta ikerketak

BIDAURRATZAGA, Eduardo: "Logros, limitaciones y retos del desarrollo humano en el ámbito de la educación en África Subsahariana", Hezkuntza Foroa. Pensamiento, cultura y sociedad. 14. zenb. Salamanca, 2012, 27.-40. or.

BIDAURRATZAGA, Eduardo eta ZABALO, Patxi: "Los acuerdos de asociación de la UE con África y América Latina: La nueva apuesta europea por tratados de libre comercio con cooperación", Estudios de Economía Aplicada, 30. liburukia, 3. zenb. ASEPELT, 2012, 1.-23. or.

BIDAURRATZAGA, Eduardo eta COLOM, Artur: "HIV/AIDS in Mozambique and the new architecture: successes, shortcomings and the way forward", The Journal of Modern African Studies, 50. liburukia, 2. zenb. Cambridge, 2012, 225.-252. or.

CELORIO, Juan José; CELORIO, Gema; LÓPEZ DE MUNAIN, Alicia. "Garapenerako Hezkuntza Unibertsitatean ezartzeko Jardunaldiak", Hika (226), 50.-51. or.

GUTIÉRREZ, Jorge, AMIANO, Iratxe eta BIDAURRATZAGA, Eduardo: "El impacto de la financiación externa en la vulnerabilidad de los países africanos", Revista Española de Desarrollo y Cooperación, 29. zenb. Madril, 2012, 155.-175. or.

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, Juan eta BARCENA, Iñaki: liburu honetako hitzaurrea: "Las multinacionales en el siglo XXI: impactos múltiples. El caso de

Iberdrola en México y en Brasil". 2015 eta gehiago. Madril, 2012, 8.-11. or.

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, Juan: "Lex Mercatoria", América Latina en movimiento, 476. zenb. Quito (Ekuador), 2012ko ekaina, 10.-12. or.

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, Juan: "La crisis de la Unión Europea: las normas jurídica al servicio del capital". Lan Harremanak, 26. zenb. Bilbao, 2012. 12.-34. or.

RUIZ, José Manuel eta CELORIO, Gema: "Una mirada sobre las miradas. Los estudios de diagnóstico en Educación para el Desarrollo". REIFOP, 15 (2). [www.aufop.com/aufop/uploaded\\_files/articulos/1350311955.pdf](http://www.aufop.com/aufop/uploaded_files/articulos/1350311955.pdf)

UHARTE, Luis Miguel: "El proceso de democratización paraguayo: avances y resistencias" in América Latina Hoy. 60. liburukia, 2012. 17.-42. or.

UHARTE, Luis Miguel: "Venezuela bolibartarra: harrakada luze baten balantzea". Uztaro aldizkaria. 80. zenb., 2012. 99.-107. or.

UNCETA, Koldo: "Crecimiento, Decrecimiento, y Buen Vivir" in Alejandro Guillen eta Mauricio Phélan (konp.): Construyendo el Buen Vivir. PYDLOS Ediciones. Cuencako Unibertsitatea, Ekuador. 85.-96. or.

UNCETA, Koldo: "Desarrollo, Subdesarrollo, Maldesarrollo y Postdesarrollo" in Beatriz Perez Galán (ed.): Antropología y Desarrollo. Discurso, Prácticas y Actores. La Catarata-IUDC. Madril, 2012. 39.-71. or.

UNCETA, Koldo; MARTÍNEZ, María José eta ZABALA, Idoye: "Nueva York, Monterrey y París: tres lógicas contradictorias para enfrentar los retos del desarrollo en la primera década del siglo". Revista Iberoamericana de Estudios de Desarrollo/Iberoamerican Journal of Development Studies. 1. liburukia, 2. zenb.. Zaragoza, 2012ko abendua. 98.-114. or.

UNCETA, Koldo: "Presente y futuro de la cooperación al desarrollo: Entre el debate de la eficacia y las dudas sobre su pertinencia". Estudios de Economía Aplicada. 30. liburukia, 3. zenb. Valladolid, abendua. 803.-810. or.

UNCETA, Koldo eta GUTIÉRREZ, Jorge: "Identidad y legitimidad de la cooperación al desarrollo: El

debate sobre la relación de la AOD con la pobreza y la desigualdad internacional". *Estudios de Economía Aplicada*. 30. liburukia, 3. zenb. Valladolid, abendua. 773.-800. or.

ZABALA, Idoe; MARTÍNEZ, María José; LABAIEN, Irati: "Análisis de la integración del enfoque de género en las políticas de cooperación al desarrollo: El caso de las instituciones del País Vasco". *Revista de Estudios de Economía Aplicada*. 30. liburukia (3). 941.-969. or.

ZABALO, Patxi: "América Latina ante las demandas inversor-estado", *Revista de Economía Mundial* 31. zenb. Huelva, 2012, 261.-296. or.

ZIRION, Iker: "La Convención para la eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer (CEDAW). Su aplicación en la República Democrática del Congo", zenbait autoreren artean, *Ecos de la serpiente. Experiencias de ida y vuelta en el Consejo de Derechos Humanos, UNESCO Etxea*, 78.-101. or.

### ✓ Hitzaldiak eta komunikazioak

BIDAURRATZAGA, Eduardo eta ZABALO, Patxi: "Erdialdeko Amerikako garapenari dagokionez, Europar Batasunarekin Elkarteko Hitzarmenaren ustezko ondorioak". *Komunikazioa. Munduko Ekonomiaren XIII. Bilera, Jaen, maiatza*.

BIDAURRATZAGA, Eduardo eta ZABALO, Patxi: "Europar Batasuna Afrikarekin eta Latinoamerikarekin elkartzeko hitzarmenak: "merkataritza askea" baino zerbait gehiago?". *Komunikazioa. Ekonomia Kritikoari buruzko XIII. Jardunaldiak. Sevilla, otsailaren 9tik 11ra*.

CELORIO, Juan José; CELORIO, Gema; LÓPEZ DE MUNAIN, Alicia: "Garapenerako hezkuntzak unibertsitatean daukan zereginari buruzko eztabaidarako ekarpenak. Unibertsitateko Garapenerako Hezkuntzari buruzko Jardunaldien azterketa". *Komunikazioa. Garapenerako Ikaskuntzei buruzko Nazioarteko I. Biltzarra. Kantabriako Unibertsitatea, azaroaren 14tik 16ra*.

DUBOIS, Alfonso: "Gaitasun kolektiboen garapena eta ekonomia soziala: proposamen teorikoa". *Komunikazioa. 2012ko Nazioarteko Rulescoop Biltzarra, Valentzia/Castello, irailaren 5etik 7ra*.

GURIDI, Luis; JUBETO, Yolanda; VILLALBA, Unai: "Economía social eta solidarioaren ekarpenak Ekuadorren Sumak Kawsayrantz (bizimodu ona) egindako bidean zenbait kontzepturen azalpena". *Komunikazioa. Garapenari buruzko Ikaskuntzen Sare Espainiarreko (REEDES) Nazioarteko I. Biltzarra. Santander, azaroaren 14tik 16ra*.

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, Juan: "Euskal Herriko diagnostikoak eta erronkak mundu globalean". *Mahai-ingurua. Betiko Fundazioa. Bilbao, urriaren 19a*.

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, Juan: "Ingurumen-babeslekua, eztabaidagai: nazioz haraindiko enpresen zeregina". *Hitzaldia. Kapitalismoari, Ingurumenaren suntsipenari eta Nahitaezko Lekualdaketei buruzko Jardunaldiak. Euskadiko CEAR. Bilbao, azaroaren 19a eta 20a*.

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, Juan: "Enpresek garapen ekonomiko eta sozialean daukaten zeregina". *Hitzaldia (telehitzaldia). Enpresek Garapenean duten Zereginari buruzko Biltzarra, Espainiako GGKE-ek Perun egindako Foroa. Lima (Peru), ekainaren 15a*.

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, Juan: "Herrien Auzitegi Iraunkorra". *Hitzaldia. Kapitalismoari, Ingurumenaren suntsipenari eta Nahitaezko Lekualdaketei buruzko Jardunaldiak. Euskadiko CEAR. Bilbao, azaroaren 19a eta 20a*.

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, Juan: "Nazioz haraindiko enpresak eta giza eskubideak globalizazioaren esparruan: desberdintasunezko harremana". *Hitzaldia. Lan Mintegia Nazio Batuek Herri Indigenen Eskubideen Arloan duten Errelatore Bereziarekin. Giza eskubideak, herri indigenak eta Espainiako nazioz haraindiko korporazioak. Madril, apirilaren 12a*.

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, Juan: "Europar Batasuneko arauketa-sistemen krisia". *Komunikazioa. Soziologiari eta Zientzia Politikoari buruzko IV. Euskal Biltzarra. Bilbao, uztailearen 16tik 18ra*.

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, Juan: "2012ko lan-eraldaketa". *Mahai-ingurua. Euskal Herriko Unibertsitatea, martxoaren 28a*.

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, Juan: "Giza eskubideak krisi sistemikoaren aurrean". *Hitzaldia. Jardunaldiak: Inposatu diguten krisiari aurre egiteko hausnarketak eta proposamenak. Bilbao, abenduaren 11*.

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, Juan: "Neoliberalismoa, nazioz haraindiko enpresen geopolitika". Hitzaldia. Lurralde, Botere eta Politikari buruzko Azterketen eta Esperientzien VI. Jardunaldia. Huehuetenango (Guatemala), azaroaren 14tik 16ra.

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, Juan: "Herrien Ituneko hitzaurrea: oinarritzko printzipioak". Hitzaldia. Biltzarra: "Herrien Ituna herrien tresna politiko moduan garatzeko eta sendotzeko egutegi politikoko estrategia bereziak eta jarduerak zehaztea". Transnational Institute. Amsterdam, abenduaren 15etik 17ra.

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, Juan: "Herrien Ituna egiteko proposamena, nazioz haraindiko enpresen ekintzaren aurrean". Hitzaldia. Herrien "Rio +20" Goi Bilera. Rio do Janeiro (Brasil), ekainaren 19tik 23ra.

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, Juan: "Zenbait eragile sozialek gaur egungo garapen-ereduari aurre egiteko egindako proposamenak eta alternatibak". Mahaia. Nazioarteko mintegia: Garapena berriro zehaztea. Lankidetzeta, giza eskubideak eta nazioz haraindiko enpresak. Madril, ekainaren 12a eta 13a.

LABAIEN, Irati; MARTÍNEZ, María José; ZABALA, Idoye: "Incorporation of Gender Equity in Decentralized Cooperation Policies in Spain". 21st Annual Conference International Association for Feminist Economics: Human Well-Being for the 21st Century: Weaving Alliances from Feminist Economics.artzelona, ekainaren 27tik 29ra.

PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos: "Bake liberala ote dago Angolan? Gerraosteko hamar urteko zaharberrikuntzaren azterketa". Komunikazioa. "Hitzaren Zuhai-zpean" Afrikako Ikaskuntzei buruzko VIII. Biltzar Iberikoa: tokian tokiko eta maila globaleko erresistentziak eta eraldaketak. Madril, ekainaren 14tik 16ra.

PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos: "Elikaduraren segurtasunaren gobernantza globalaren ahuleziak eta eraldaketa". Hitzaldia. Mintegia: La Inseguretat Alimentària Mundial: Crisi, Problemes i Tendències Recents. Universitat de Barcelona, ekainaren 1a.

PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos: "Segurtasunari buruzko azterketak! Egiatzatutako azpidiziplinako muga porotsuak eta arakatu gabeko lurraldeak". Komunikazioa. Soziologiaren eta Zientzia Politikokoaren IX. Euskal Biltzarra. Bilbao, uztailaren 18a.

PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos: "Gatazkei, Garapenari eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Lan Taldeko" antolatzailea (Deustuko Unibertsitateko Cristina Churrucarekin). Soziologiaren eta Zientzia Politikokoaren IX. Euskal Biltzarra: "Garai berrirako zientzia sozial berritua". Bilbao, uztailaren 18a.

PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos: "Afrikako kontinenterako "bakegintzaren" nazioarteko agenda: bake liberalerako proiektuaren inguruko eztabaidak eta kontraesanak" taldeko antolatzailea (Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Itziar Ruiz-Giménezekin). "Hitzaren Zuhai-zpean" Afrikako Ikaskuntzei buruzko VIII. Biltzar Iberikoa: tokian tokiko eta maila globaleko erresistentziak eta eraldaketak. Madril, ekainaren 15a.

UHARTE, Luis Miguel: "Rafael Correak Ekuadorren daukan proiektu demokratikoaren giltzarriak". Hitzaldia. Soziologiaren eta Zientzia Politikokoaren IX. Euskal Biltzarra. Bilbao, uztaila.

UHARTE, Luis Miguel: "XXI. mendeko Ekuador: narritiba demokratiko berria". Hitzaldia. Latinoamerikaren aldeko Espainiarren XV. Topaketa. Madril, azaroa.

UHARTE, Luis Miguel: "Lugoren gobernu Paraguayn: estatu-kolpea baino lehenagoko aldaketa demokratikoaren balantzea". Hitzaldia. Azterketa Politikoa Kritikari buruzko II. Biltzarra. Bilbao, azaroa.

UNCETA, Koldo: "Garapenerako nazioarteko lankidetzaren etorkizuna 2015. urtetik haratago: baldintzatzaileak eta erronkak". Hitzaldi gonbidatua. Garapenari buruzko Ikaskuntzen Nazioarteko I. Biltzarra. Santander, azaroa.

UNCETA, Koldo; VILLENA, Unai eta LABAIEN, Irati: "Informazio-sistemak garapenerako lankidetzako politika deszentralizatuen esparruan: Euskal Autonomia Erkidegoaren kasua". Hitzaldia. Garapenari buruzko Ikaskuntzen Nazioarteko I. Biltzarra. Santander, azaroa.

VILLALBA, Unai: "Bizimodu egokia eta/edo garapena? Ekuadorrekin garapenerako lankidetzeta ezartzeko inplikazioak". Komunikazioa. Munduko Ekonomiaren XIV. Bilera. Krisialdiko nazioarteko ezarpena. SEM. Jaengo Unibertsitatea, maiatzaren 3a eta 31.

VILLALBA, Unai; GURIDI, Luis; LÓPEZ María: "Dimentsio sozio-politiko Euskadiko lankidetzeta

deszentralizatuko tokian tokiko giza garapenerako prozesuetan". Komunikazioa. Garapenari buruzko Ikaskuntzen Nazioarteko I. Biltzarra, REEDES. Santander, azaroaren 14tik 16ra.

ZABALA, Idoie; MARTÍNEZ HERRERO, María José: "Garapenerako agendan eta laguntzaren eraginkortasunean ezartzeko genero-ikuspegia". Komunikazioa. Munduko Ekonomiaren XIV. Bileran: krisialdiko nazioarteko ezarpena. Jaen, maiatzaren 30etik ekainaren 1era.

ZIRION, Iker: "DDR as Obstacle to Trust and Reconciliation in Post-conflict Societies. The Case of the Democratic Republic of the Congo". Komunikazioa. AEGIS Thematic Conference on Trust and Reconciliation in Post-Conflict Societies. Basilea, urriaren 4tik 6ra.

ZIRION, Iker: "Marokok Mendebaldeko Saharako gatazkan erabilitako indarkeriaren bilakaera historikoa". Komunikazioa. VIII Iberian Congress of African Studies. Madril, ekainaren 14tik 16ra.

ZIRION, Iker: "Gatazka osteko testuinguruetan emakumeen giza eskubideak defendatzeko nazioarteko babesa: CEDAWen ezarpena Kongoko Errepublika Demokratikoan". Komunikazioa. Soziologiaren eta Zientzia Politikoaren IX. Euskal Biltzarra. Bilbao, uztailaren 16tik 18ra.


ZURBANO, Mikel, BIDAURRATZAGA, Eduardo eta MARTÍNEZ TOLA, Elena: "Lurraldeko ereduak globalizazioaren testuinguruan jasandako eraldaketak, tokian tokiko giza garapenaren ikuspegitik". Komunikazioa. Ekonomia Kritikoari buruzko XIII. Jardunaldiak. Sevilla, otsailaren 9tik 11ra.



## 5. Irakaskuntza eta ikerkuntzarako baliabideak

Gaur egun, 19.200 erregistro baino gehiago daude dokumentazio zentroko Liburutegi Digitalean. Hain zuzen ere, horixe bera da Hegoa institutuak 1988. urteaz geroztik metatu duen ondarea, eta, bertan, gaur egunera arte garapenari zein lankidetzari buruz egin diren eztabaida nagusiak daude ikusgai. Horri esker, institutuko ikertzaileek eta irakasleek, eragile sozialek eta jende guztiak Euskadiko garapenerako lankidetzako politiketan eta lanean egin ahal izan dute aurrera.


Azken hamarkadan, Dokumentazio Zentroko zerbitzuak bilakatu egin direnez, ageri-agerikoa da aldatetak egon direla eta zentroa informazioaren zein komunikazioaren teknologia berrietara egokitu dela. 2012. urtean, Liburutegi Digitaleko on line irakurketen banaketa nabarmentzen da: PDFen jaisierak 514.036koak izan dira, eta 117.796 orri ikusi dira, Googleko datuen arabera.



**Kontsultak eta maileguak:** 2000 (2.200); 2001(2.900); 2002 (2.950); 2003 (2.780); 2004 (1.503); 2005 (1.014); 2006 (972); 2007 (686); 2008 (780); 2009 (553); 2010 (1.175); 2011 (1.645); 2012 (1.117) **Liburutegi Digitala** (Googleren arabera ikusitako orriak): 2004 (3.003); 2005 (10.646); 2006 (46.952); 2007 (56.837); 2008 (53.532); 2009 (77.378); 2010 (86.632); 2011 (148.174); 2012 (117.796) **Liburutegi Digitaleko PDFen jaisierak:** 2006 (6.905); 2007 (15.905); 2008 (64.095); 2009 (160.434); 2010 (186.757); 2011 (216.928); 2012 (514.036) **Hegoako buletina** (Googleren arabera ikusitako orriak): 2004 (400); 2005 (450); 2006 (500); 2007 (6.500); 2008 (9.500); 2009 (37.836); 2010 (25.656); 2011 (13.709); 2012 (12.073) **Erreferentziako lanak** (Googleren arabera ikusitako orriak): 2007 (1.100); 2008 (1.300); 2009 (12.173); 2010 (11.211); 2011(1.520); 2012 (814) **Hemeroteka** (Googleren arabera ikusitako orriak): 2007 (3.200); 2008 ( 3.800); 2009 (24.937); 2010 (39.234); 2011 (11.315); 2012 (14.401) **Hegoako argitalpenak-weba** (Googleren arabera ikusitako orriak): 2011ko abuztu-tik abendura (16.356); 2012 (35.008) **Hegoako Intranet** (web pribatuko bisitaldiak): 2011 (2.812); 2012 (3.224)


Era berean, honako zerbitzu hauek ere badaude Dokumentazio Zentroan: informazio digitala, buletin espezializatuak, hemeroteka eta erreferentziako atala. Guzti-guztiak lankidetzaren zein garapenaren gaitan daude espezializatuta, eta, 2012. urtean, guztira 65.520 orri ikusi dira, Googleko datuen arabera. Horrez gain, liburutegiko lokaletan doktoregaiei, graduondoko ikasleei eta jende guztiari emandako banakako atentzioak ere hartu behar dira kontuan, 2012an 1.117 laguni eman zaielako zerbitzu hori.

Liburutegi Digitalaren eta institutuko argitalpen-zerbitzuaren bidez, Hegoako Dokumentazio Zentroak eta zuzenean bere menpe ez dauden beste informazio-zerbitzu batzuek (*Bantaba* eta *Tokian Tokiko Giza Garapenaren Ataria*, esaterako) informazio espezializatua banatzen dute euren bilatzaileen bitartez. Horri esker, hautatutako informazioaren on line irakurgaiak jaitsi daitezke. Grafikoan, honako hauxe dago ikusgai: Liburutegi Digitalak azken zazpi urteotan izandako bilakaera eta gainerako zerbitzuek azken bi urteotan izandako bilakaera.



**Liburutegi Digitala:** 2006 (6.950); 2007 (15.905); 2008 (64.095); 2009 (160.434); 2010 (186.757); 2011 (216.928); 2012 (514.036) **Bantaba:** 2011 (294.967); 2012 (391.828) **ART ataria:** 2011 (267.083); 2012 (270.538) **Hegoako argitalpenak-weba:** 2011ko urr-abe (8.523); 2012 (67.043)

Hegoako Liburutegi Digitala nazioarteko lankidetzan eta garapenean espezializatuta dagoen espainiarako datu-base nagusietakoa da. Datu-eskaera handiena Amerikako kontinenteak egin duenez (%57), ez da aldaketarik egon iazkoaren aldean. Bestetik, kontsulten %41 egin dira Europako kontinentetik. Hain zuzen ere, %18 Euskal Autonomia Erkidegotik egin dira; eta %20, Estatu espainolaren gainertatik.





## 6. Aholkularitza, kontsultoretza eta laguntza teknikorako jarduerak

### ✓ Andeak Programa

2012. urtean, 2010eko deialdian Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak onartutako programa betearazten jarraitu dugu: *Andeetako eskualdea eraldatzeko proposamen ekonomikoak: tokian tokiko garapen ekonomikoaren eta ekonomia sozial zein solidarioaren arteko loturak*. Programa Ekuadorko hegoaldeko Lojako probintzian garatzen da, eta Latinoamerikako Intercooperation Fundazioa da tokian tokiko bazkidea.

Programak Lojako probintzian ekonomia sozial eta solidarioarako estrategia egitea du helburu, eta, horretarako, honako dimentsio hauei ematen zaie lehentasuna: gobernantza, partaidetza, iraunkortasun ekologikoa eta kultura artekotasuna. Hori dela eta, hiru osagai hartu dira kontuan lan egiteko orduan:

1. Jakintza ikertzea eta kudeatzea. Horretarako, oinarri teorikoak zein praktikoak eratu eta zabaltu egin dira, Lojako probintzian ezartzeko moduko ESSko berdintasunezko lurralde-politika publikoak egiteko. 2012. urtean, ESS kontzeptuari, bere jarraitasunei eta beste ikuspegi batzuekin izandako hausturei buruzko lehenengo ikerlana amaitu da. Besteak beste, honako hauexek dira ikuspegi horiek: tokian tokiko garapena, ekonomia feminista, ekonomia bateratua eta finantza herritarrak.
2. Lojako lurraldeko eragileen gaitasunak indartzea (gobernu autonomo deszentralizatuak, gobernu nagusitik aldentutako erakundeak, Lojako Unibertsitate Nazionala, Ekuadorko Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Mugimendua eta nekazarien erakundeak), politika publikoetarako proposamenak eratzeko eta ESSn genero-berdintasuna kontuan hartzen duten esperientziak sustatzeko.
3. Ekoizpenean, prozesaketan, balioaren erantsketan, merkaturaketan eta zirkuitu ekonomiko solidarioaren egituraketan ESSko elkarketa-ekimenak indartzea, genero-berdintasunaren eta elikaduraren

burujabetzaren ikuspegiak kontuan hartuta. Hain zuzen ere, honako hauexen ekimen ekonomikoak babesten ari dira: Lojako Emakumeen Herri Batasuna (UPML), Ohorea eta Lana Erkidegoko Kafegintza Gu-nea, Lojako Sare Agroekologikoa eta Hegoaldeko Nekazarien Herri Erakundearen Federazio Probintzial Unitarioa (FUPOCPS).

### ✓ Boliviako, Peruko eta Ekuadorko emakumeen EEEE eta ESS programa

Programa Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2012ko Programen deialdian onartu zen, eta 2013-2015eko epealdian betearaziko da. Berdintasuna kontuan hartzen duen garapen ekonomikoa sustatu nahi du Andeetako eskualdean. Horretarako, ekonomia sozial zein solidarioaren (ESS) arlo sektoriala eta emakumeen eskubide ekonomikoak (EEEE) sustatuko ditu, Andeetako eskualdeko hiru herrialdetan koordinatutako ekintzen bitartez: Bolivia, Ekuador eta Peru. Sektore horretako politika publikoan eragina izan nahi duenez, ekonomia solidarioaren eta bidezko merkataritzaren mugimenduak indartuko ditu, bertako erakundeen eta, batez ere, emakumeen erakundeen bidez.

Horretarako, Ekuadorren, Bolivian eta Perun garatuko diren hiru osagai landuko dira, nazio-mailako zein nazio anitzeko ikerketarako zein presakuntzarako ekintzen bidez eta emakumeen ESS ekimenean sustapenerako ekintzen bitartez, esperientziak sistematizatzeko asmoz. Ekintza horiek, hain zuzen ere, Boliviako La Pazeko Departamentuko Goi Lautadako lau udalerritan jarriko dira berriz. Honako hauexek dira Hegoak dituen tokian tokiko bazkideak: Boliviako San Andres Unibertsitate Nagusiko (UMSA) CIDES (Garapenerako Zientzien Institutua), Ekuadorko Lankidetzako Artekoa eta Peruko Genero zein Ekonomia Taldea. Horrez gain, hiru herrialdeetako ESS mugimenduekin eta Peruko UNMSM San Marcos Unibertsitate Nazional Nagusiarekin ere lan egingo dugu. Bestetik,

Hegoak eta EHUK hitzarmen instituzionalak sinatu dituzte Boliviako CIDESein eta UMSAren eta Peruko UNMSMekin eta Soziologia Eskolarekin.

Euskadin, prestakuntza, sentsibilizazio, jakintzaren kudeaketa eta ikerketarako zenbait ekintza lankidetzako dira, eta, horretarako, Hegoalde-Hegoalde-Iparalde lankidetzako ekimenean parte hartuko dugu zenbait instituziotako pertsonekin eta erakundeekin.

✓ **Hitzarmena: "Euskal lankidetzari begira lehentasunezkoak diren prozesuen kalitatea sendotzea: tokian tokiko garapen ekonomikoa eta herrialde estrategiak"**

Euskal Agentziaren finantziarioari esker, hitzarmen honetako ekintzei eman zaie jarraipena, ekonomia sozial zein solidarioari buruzko esperientziak trukatzeko eta hausnartzeko arloan nahiz lankidetzako politikak ebaluatzeko eta lankidetzarako estrategia berriak zehazteko arloan.

Horrez gain, Euskadiko ESSri buruz hausnartzeko eta eztabaidatzeko mintegien zikloa ere egin da, eta sektore horretan lan egiten duten erakunde hauek parte hartu dute bertan: EHU, REAS, Fiare, Mundukide, Setem, Emaús Fundazio Soziala, GEZKI, Lanki, Bagara eta Hegoa. Aldi berean, Latinoamerikan ere sustatu da prozesu hori, emakumeen eskubide ekonomikoari eta ESSri buruzko mintegia egin delako La Paz (Bolivia, otsaila); beste bat, Liman (Peru, martxo); eta foroa, Lojan (Ekuador, martxo). Topaketa horiek hiru herrialdeetako ESSko mugimenduekin, unibertsitateekin, GGKE-ekin eta gobernuko instituzioekin koordinatu dira, ESS lekuratzeko, eskualderako lan-lerroak ezartzeko eta politika publikoetako eragina bultzatzeko.

Era berean, hitzarmen horren esparruan ere eman zaio laguntza teknikoa Kubako Lankidetzarako Herrialde-Estrategiari. Bestetik, strategiaren jarraipen moduan Hegoak euskal GGKE-ekin eta inplikaturako instituzio kubatarrekin egindako azterketa/ebaluazioko emaitzak ere gizarteratu dira. Bertan, hain zuzen ere, Hegoak eskainitako trebakuntza eta laguntza teknikoarekin lotutako

hiru gomendio nabarmentzen dira: i) proiektuen ebaluazioa; ii) generoaren arloan instituzioekin egindako partaidetzako diagnostikoak eta estrategian oinarritutako proiektuak; eta iii) plangintza estrategikoa eta udaleko tokian tokiko garapena.

✓ **Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD)**

2012ko abenduan, Saharako biztanle errefuxiatuen kanpalekuan bertan zuzenean egindako proiektuak amaitu dira. Azken biak honako honexekin egon dira lotuta: i) mikrokredituen programen bitartez, wilayetako tokian tokiko garapena sustatzea Saharako Emakumeen Batasun Nazionalarekin eta Lankidetzako Ministerioarekin (Lankidetzaren Euskal Agentziaren finantziarioa); eta ii) Smarako gazteentzako ekoizpen eta enplegu zentroari gaitasunak garatzen laguntzea (AECIDen finantziarioa).

Hegoaren laguntza teknikoaren eta borondatezko lankidetzaren zereginaren bitartez, 10 urtetan egon gara eta lan egin dugu kanpalekuan. 2012ko abenduan, eskualdeetarako prozesua egin zen, eta Saharako zenbait ministerioek parte hartu zuten bertan, hain testuinguru latzean gaitasunen garapenerako proiektu estrategiak direlako eta urte horietan loturak ezarri direlako elkartasunaren nahiz lankidetzaren arloan. Dena dela, unean uneko ekintzetan laguntzen jarraituko dugu lankidetzaren horri eusteko; Giza Eskubidei buruzko ikerketan, esate baterako.

✓ **Aldundiak eta udalak**

2012. urtean, betiko moduan, behar besteko aholkularitza eman diegu Bizkaiko Foru Aldundiarri eta Irun, Ordizia, Eibar, Beasain nahiz Ermuko udalei. Hain zuzen ere, garapenerako lankidetzako eta sentsibilizazioko proiektuak diruz laguntzeko deialdietako oinarriak zehazten lagundu diegu, deialdi horietara aurkeztutako proiektuak aztertu ditugu eta onartutako proiektuen jarraipena egin dugu harik eta amaitu diren arte. Prozesu horretan, lankidetzako programak ezartzeko eta sustatzeko laguntza etengabea eman diegu aipaturako erakunde horiei.

2009-2011ko Lankidetzarako Lehenengo Foru Plan Zuzentzailea balioetsi ondoren, 2013-2015eko Bizkaiko Lankidetzarako Bigarren Plan Zuzentzailea egiteko beharrezko laguntza teknikoa eman genuen.

### ✓ Antioquia Medellin – Bizkaia Bilbao Programa

Bosgarren urtez jarraian, programa honetako lankidetzeta-hitzarmenaren jarraipena egin eta laguntza teknikoa eskaini dugu. Bertan, hain zuzen ere, honako hauek parte hartzen dute: Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilboko Udalak eta BBK-k osatutako Bizkaia - Bilbao Partzuergoa eta Kolonbiako Antioquiako Gobernazioa, Medellingo Udala eta Antioquiako Unibertsitatea.

Programako ekintzek proiektuetan parte hartzen duten emakumeen jabeakuntza lortzea dute helburu nagusi, eta bi gune desberdinetan bizi dira. Batetik, herrialdeko ipar-ekialdean, programaren bidez sortutako 13 emakume-erakunderi laguntzen zaie, eta 6 udalerritan daude banatuta. Erakunde horiek eragina izan nahi dute tokian tokiko garapenerako politiketan, eta mikroenpresak jarri nahi dituzte abian, euren bizi-baldintzak hobetu ahal izateko. Bestetik, Medellingo 8. eta 9. erkidegoetan, gatazka armatuaren ondorioz lekualdatutako biztanle afroinordeko gehienak bizi dira. Era berean, emakume afroen antolakuntza sustatzea eta indartzea ere bada helburua, eragin politikoa izan dezaten eta enpresa kolektiboak nahiz banakako mikroekimenak sustatu ditzaten. Horrez gain, kasu honetan, Medellingo hiriko kultura afroa berreskuratzea eta aitortzea ere bada erronka nagusia.

### ✓ Guatemala Hitzarmena

Hegoak *Guatemalarekiko Lankidetzaren Euskal Estrategian* parte hartzen du, Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmenaren bitartez. Guatemalako errealitatearen diagnostikoa eta euskal lankidetzak egindako lanaren azterketa kritikoa kontuan hartuta, lankidetzarako eredu alternatiboaren aldeko apustua egiten du *estrategiak*. Gainera, arlokako eta/edo prozesukako lanaren ikuspegia gainditu ondoren, bidezko eta berdintasunezko Guatemala

demokratikoaren alde eragin handiena duten subjektuak indartzea hartzen du helburu nagusitzat: mugimendu sozialak eta tokian tokiko botereak.

Hegoaren laguntza jasotzen duen estrategiak aldatetarako subjektu estrategikoak indartu nahi du gaur egungo Guatemalan: mugimendu feminista, nekazarien zein indigenen mugimendua eta tokian tokiko botere konprometitua. Hartara, aldatetarako subjektu horietan parte hartzen duten erakundeek osatutako 3 lan-mahai sektorial eta sektore arteko 4 mahai dinamizatu dira (betiere euskal lankidetzaren esparruaren barruan). Mahai horiek erakunde parte-hartzaileek partaidetzaz zehaztutako ekintza-plana betearaztea dute helburu, egituraketarako, salaketarako, alternatiben eraketarako, eraginerako... dituzten gaitasunak modu kolektiboan suspertu ahal izateko.

### ✓ Kuba. Liburutegi Mediko Nazionala

2012. urtean, koordinatzen eta laguntza teknikoa ematen jarraitu dugu honako proiektu honen jarraipen eta kudeaketari begira: Osasun Ministerioari Zientzia Medikoen Institutuarekin (INFOMED) lotuta dagoen "Habanako Liburutegi Mediko Nazionalaren Zaharberrikuntza". Dohaintzan emandako 600.000 euroko fondo pribatuen bidez finantzatu da, eta Hegoak berak koordinatu du bere ezarpena. Aurreikuspenen arabera, proiektua 2013. urtean egongo da amaituta.

### ✓ BBK

Betiko moduan, aurreko urteetan onartutako eta oraindik ere abian jarri gabe zeuden proiektuen jarraipena egin dugu.

### ✓ Masterraren Ebaluazioa

Jaume I Unibertsitateko "Bakeari, Gatazkei eta Garapenari buruzko Ikaskuntzak" unibertsitate-masterraren ebaluazioa egin dugu.



## 7. Sare, aliantza eta foroetako partaidetza

### ✓ Amanda Plataforma

Bertan, Vitoria-Gasteizen kultura arteko ikuspegia kontuan hartzen duen hezkuntzaren arloan lan egiten duten zenbait elkarte (Hegoa, Desazkundera, Saregune eta Ramón Bajo GE) eta instituzio daude bilduta (Ramón Bajo LHI eta Campilloko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak). 2005. urteaz geroztik, hezkuntzako kultura artekotasunari buruz hausnartu nahi du plataformak, parte hartzen duten erakundeetako hezkuntza-proiektuen arteko sinergieie atera nahi die onura eta ekintza bate-ratuak sustatu nahi ditu Alde Zaharreen.

2012. urtean, lankidetzalana garatu zen Ramón Bajo LHIREkin, ikastetxeko maila guztietan kontsumo arduratsuari buruzko tailerrak proposatu, antolatu eta abian jartzeko. Ondoren, Zadorra Fundazioarekin bultzatu zen oso-oso desberdinak ziren hiriko bi ikastetxe koordinatzeko proiektua (Ramón Bajo LHI eta Olabide Ikastola). Horren bitartez, kontsumo eta iraunkortasunarekin lotutako jarduera bateratuak egin ziren, eta plataformako erakundeek parte hartu zuten bertan.

### ✓ Mosaiko

Garapenerako hezkuntzari buruz hausnartzeko taldea da, eta 2007. urtean eratu zen, hezkuntzako estrategiei eta jarduketei buruz hausnartu nahi zuten taldeak, elkarteak, GGKEak eta mugimendu sozialak elkartzeko. 2012. urtean, honako hauexek batzartu dira Bilbon: Euskadiko CEAR, Zirkulu Solidarioa, Baladre (Asturias) eta Lankidetzako zein Garapenerako Ekimenak. Aurton, gainera, talde horren esparruan aurreko epealdian mobilizazio sozialari buruz landutako hausnarketan agiria ere argitaratu da: [http://ciudadaniaglobalhiritartasuna.files.wordpress.com/2012/04/2012\\_04\\_docmovilizacionmosaiko.pdf](http://ciudadaniaglobalhiritartasuna.files.wordpress.com/2012/04/2012_04_docmovilizacionmosaiko.pdf)

### ✓ Alternatibak Lotuz

Hegoak Alternatibak Lotuz bi eskualdeko sarean parte hartzen du, eta bi kontinenteetan ezarritako politika neoliberalen aurkako erresistentzia sendotzea du helburu, baina, batez ere, nazioz haraindiko enpresen zein gobernuen politikiei aurre egitea da bere helburua, egiturazko bidegabekeriak sortu eta giza eskubideak behin eta berriro urratzen dituztelako.

2011. urteaz geroztik, Bi Eskualdeko Sareak kode lotesleen eta nazioarteko auzitegien proposamen zehatzei buruzko kanpaina jarri du abian, nazioz haraindiko enpresak epaitzeko asmoz. Hona hemen helburu nagusiak: multinazionalen gaineko kontrol publikoa eskatzea; euren botere politiko, ekonomiko eta juridikoa salatzea eta desegitea; botere korporatiboari aurre egiten dioten erkidego kaltetuen borrorak indartzea; eta gobernuen, nazioarteko erakunde finantzarioen nahiz nazioz haraindiko enpresen artean dauden konplizitateak agerian jartzea.

### ✓ Euskal Herriko Elikaduraren Burujabetzaren Aldeko Aliantza

Hegoak Euskal Herriatik bertatik eta Euskal Herriko udalerrien elikaduraren burujabetza jakitera emateko, eratzeko eta defendatzeko sortu den aliantzan parte hartzen du. Oinak lurrean eta begirada globalaz, beste herrialde batzuetan dauden antzeko ekimenekin lan egiten du, nazioz gaineko aliantzetan edo plataformetan ere parte hartu dezakeela kontuan hartuta.

### ✓ Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea (REAS)

2012an, REAS Euskadiko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarean sartu zen Hegoa, erakun-

de bazkide moduan. Hartara, Hegoak are jarduera gehiago garatzen ditu lankidetzaren arloan, eta, horrez gain, sarea kudeatzeko erantzukizunak ere hartu ditu bere gain. Horrela, bada, 2012ko ekainaren 8an, Euskadiko REASEko Zuzendaritza Batzordea berritu zen, eta Maria Angeles Díez Hegoako ordezkari moduan sartu zen batzordean. Era berean, Auditoria Sozialeko Lan Taldean ere sartu da gure ordezkaria, eta, orain arte, Juan Carlos Perez de Mendigurenen bidez parte hartzen genuen bertan. Bestetik, Generoaren eta Ekonomia Solidarioaren Lan Taldea ere sortu da, besteak beste, eta 2013. urtean hasiko da abian.

### ✓ FIARE

Badira bi urte Hegoak FIARE Proiektuan parte hartzen duela. Merkatu finantzarioan alternatibak sortu nahi dituzten pertsonen eta erakundeen sarea da, eta beste balio batzuk kontuan hartzen dituen ekonomia eratu nahi du gizarte bidezkoagoren alde. Horrez gain, Banca Popolare Etica, S. Koop.-eko agente moduan diharduen enpresa ere bada.

### ✓ V. Elkarrizketa Kontsonanteak

Hegoak apirilaren 16an, 17an eta 18an Madrilen egindako V. Elkarrizketa Kontsonanteetan parte hartu du: **Demokrazia, agenda feminista eta garapena**. Elkarrizketa Kontsonanteak Marcosur Egituraketa Feministaren ekimena dira, eta lankidetzari zein garapenari buruzko agenda jorratzen eta eratzen hasi nahi du, emakumeen eta mugimendu feministaren begirada kontuan hartuta.

Aurreko lau edizioetan (2008ko ekainean, Montevideon; 2010eko ekainean zein irailean, Liman nahiz Antiguán, hurrenez hurren; eta, 2011ko ekainean, Santo Domingon), truke eta hausnarketarako gunea sortzeko asmoan egin da aurrera. Horrela, bada, Latinoamerikako zein Karibeko sareak nahiz erakunde feministak, Espainiako lankidetzak osoa eta Nazio Batuen sistemako agentziak koordinatzeko eta egituratzeko ekintzak bultzatu ahal izango dira. Gune horretatik, hain zuzen ere, koordinazio eta egituraketarako ekintzak suspertu dira, behar besteko esparrua sortzeko eta, horren

bitartez, emakumeen jabekuntzarako nahiz genero-berdintasunerako jarduketetan emaitza hobek sustatzeko.

Bosgarren edizio honetan lortutako emaitzen araberak, zenbait lan-estrategia diseinatu dira, agenda feminista testuinguru politiko berrian ezarriko dela eta demokraziaren eraketa zein garapen politikak lotzen dituen plana zehaztuko dela bermatzeko. Latinoamerikako, Karibeko eta estatu espainoleko emakume, erakunde eta sare feminista guztiok adierazpena egin genuen amaieran, herritartasunaren kaltetan kontsumoa lehenesten duten bizimoduak salatuzko. Era berean, lurra zein lurraldeak ere aldarrikatu genituen, baita denboraren kudeaketa eta emakumeek euren gorputzei zein bizitzeari buruzko erabakiak hartzeko daukaten erabateko burujabetza ere, berdintasunaren muturreko ideia kontuan hartuta. Adierazpen osoa he mentxe dago ikusgai: [www.dialogosconsonantes.org/Vdecaracion.pdf](http://www.dialogosconsonantes.org/Vdecaracion.pdf)



## 8. Erakunde organigrama

### Hegoa Institutuko Zuzendaritza-Kontseilua

**Zuzendaria:** Luis GURIDI **Idazkaria:** M<sup>a</sup> José MARTINEZ

**Kideak:** Iratxe Amiano, Gema Celorio, Gonzalo Fernández, Maite Fernández-Villa, Daniel Freiherr Von Freyberg, Irantzu Mendia, Karlos Perez A. dde Armiño, Silvia Piris, Carlos Puig Eta Patxi Zabalo.

---

### Hegoa Elkarteko Zuzendaritza-Batzordea

(onura publikoko elkarte da. EHAA, 165. zenb., 2003ko abuztuaren 26a).

**Presidentea:** Patxi Zabalo **Presidenteordea:** Mari Luz De La Cal **Idazkaria:** Eduardo Bidaurratzaga

**Diruzaina:** Luis Guridi

**Kideak:** Mikel De La Fuente, Mertxe Larrañaga, Txema Navarro, Yolanda Jubeto.

---

### Hegoa Institutura atxikitako irakasleak

Xabier Aierdi, Jokin Alberdi, Efrén Arreskurrinaga, Xavier Barrutia, Roberto Bermejo, Eduardo Bidaurratzaga, Mari Luz De La Cal, Mikel De La Fuente, Juanjo Celorio, Marian Díez, Alfonso Dubois, Iker Etxano, Xabi Gainza, Luis Guridi, Jorge Gutiérrez, Juan Hernández Zubizarreta, Luis Mari Huarte, Pedro Ibarra, Yolanda Jubeto, Mertxe Larrañaga, Jon Larrañaga, María López Belloso, Imanol Madariaga, Eduardo Malagón, Zesar Martínez, Elena Martínez Tola, Mari José Martínez, Irantzu Mendia, Karlos Pérez De Armiño, Juan C. Pérez De Mendiguren, Víctor Pozas, Uri Ruiz Bikandi, Joseba Andoni Sainz De Murieta, Koldo Unceta, Unai Villalba, Idoye Zabala, Patxi Zabalo, Iker Zirion, Imanol Zubero, Mikel Zurbano.

---

### Talde teknikoa

**Koordinatzaile nagusia:** Gonzalo Fernández

**Dokumentazioa eta irakaskuntza:** Maribi Lamas, Itziar Hernández, Marisa Lamas, Amaia Guerrero, Iñaki Gandariasbeitia

**Ikerketa:** Gloria Guzmán, Iker Zirion, Javier Gonzalez, Silvia Piris, Yenifer García.

**Hezkuntza:** Gema Celorio, Amaia Del Río, Alicia López De Munain

**Aholkularitza eta kontsultoretza:** Carlos Puig, Michel Sabalza, Maite Fernández-Villa, Luis Elizondo, Juan Bediauneta, Javier González

**Finantzak:** Pilar Jurado, Sergio Campo, Almudena Sainz, Amaia Guerrero

**Idazkaritza eta administrazioa:** Joana Del Olmo, Rosario Uriarte.

---

### Sareak eta lankidetzak

Garapenari buruzko Ikaskuntzen Sare Espainiarra (REEDES) • Afrikako Ikerkuntza eta Irakaskuntza Elkarte (ARDA) • Euskadiko GGKE-en Koordinakundea (kide laguntzailea) • Espainiako GGKE-en Koordinakundea (kide laguntzailea) • Harresiak Apurtuz - Etorikinei Laguntzeko Euskadiko GGKE-en Koordinakundea • Women in Development Europe (WIDE) • European Association of Development Research and Training Institutes (EADI) • Latinoamerikari buruzko Informazio eta Dokumentaziorako Sare Europarra (REDIAL) • Garapenerako Nazioarteko Elkarte (SID) • Dokumentazio eta Informazio Zientifikoko Elkarte Espainiarra (SEDIC) • Artxibozain, Liburuzain eta Dokumentalisten Euskal Elkarte (ALDEE) • Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea (REAS) • FIARE - Banka Etikoa.

---

**Langile laguntzaileak.** Eskerrak eman nahi dizkiegu urtean zehar zenbait jardueratan Hegoa Institutua-rekin nola edo hala lan egin duten guztiei.

# 9. txosten ekonomikoa

Emaitzen Kontua, 2012KO abenduaren 31n (eurotan adierazita)

	(ZORRA) HARTZEKOAK	(ZORRA) HARTZEKOAK
	31.12.2012	31.12.2011
<b>A) ERAGIKETA JARRAITUAK</b>		
<b>1. Berezko jardueraren diru-sarrerak</b>	<b>2.872.183,32</b>	<b>3.043.307,37</b>
a) Elkarteko kideen eta afiliatuen kuotak	11.925,53	12.382,30
b) Erabiltzaileen ekarpenak	1.350,00	1.205,00
d) Ekitaldiko soberakinari egotzitako diru-laguntzak	2.794.405,38	2.783.864,42
e) Ekitaldiko soberakinari egoitzako dohaintzak eta legatuak	64.502,41	245.855,65
<b>2. Salmentak eta merkataritza-jardueraren beste diru-sarrera batzuk</b>	<b>36.221,05</b>	<b>136.553,17</b>
<b>3. Laguntzengatiko eta bestelakoengatiko gastuak</b>	<b>(1.243.362,05)</b>	<b>(1.313.697,32)</b>
a) Moneta laguntzak	(1.226.225,96)	(1.300.488,00)
b) Laguntzengatiko eta gobernu-organoaren gastuak	(5.208,00)	(13.209,32)
c) Diru-laguntzen, dohaintzen eta legatuen itzulketa	(11.928,09)	---
<b>7. Jardueraren beste diru-sarrera batzuk</b>	<b>450,04</b>	<b>511,57</b>
<b>8. Langileria-gastuak</b>	<b>(1.012.576,62)</b>	<b>(1.002.770,11)</b>
a) Soldatak, ordainsariak eta antzekoak	(783.008,10)	(772.208,80)
b) Zama sozialak	(229.568,52)	(230.561,31)
<b>9. Jardueraren beste diru-sarrera batzuk</b>	<b>(613.172,09)</b>	<b>(817.867,72)</b>
a) Kanpoko zerbitzuak	(612.042,89)	(817.314,41)
b) Zergak	(1.129,20)	(553,31)
<b>10. Ibilgetuaren amortizazioa</b>	<b>(4.924,60)</b>	<b>(2.144,82)</b>
<b>11. Ekitaldiko soberakinera intsuldatutako diru-laguntzak, dohaintzak eta kapital-legatuak</b>	<b>4.018,33</b>	<b>750,05</b>
a) Ekitaldiaren soberakinera intsuldatutako kapitalaren diru-laguntzak	4.018,33	750,05
<b>13. Beste emaitza batzuk -</b>	<b>---</b>	<b>3,28</b>
<b>A.1) Jardueraren soberakina</b>	<b>38.837,38</b>	<b>44.645,47</b>
<b>14. Diru-sarrera finantzarioak</b>	<b>7.672,27</b>	<b>8.815,41</b>
b) Balio negoziagarri eta beste finantza instrumentu batzuetakoak	7.672,27	8.815,41
b.2.) Hirugarrenenak	7.672,27	8.815,41
<b>15. Gastu finantzarioak</b>	<b>(260,08)</b>	<b>(260,74)</b>
b) Hirugarrenetik zergengatik	(260,08)	(260,74)
<b>17. Aldaketa-diferentziak</b>	<b>---</b>	<b>(266,23)</b>
<b>A.2) FINANTZA-ERAGIKETEN SOBERAKINA</b>	<b>7.412,19</b>	<b>8.288,44</b>
<b>A.3) ZERGAK ORDAINDU AURRETIKO SOBERAKINA (A.1 + A.2)</b>	<b>46.249,57</b>	<b>52.933,91</b>
<b>A.4) EKITALDIKO SOBERAKINA, ERAGIKETA JARRAITUETATIK</b>	<b>46.249,57</b>	<b>52.933,91</b>
<b>B) GELDIARAZITAKO ERAGIKETAK</b>		
<b>20. Geldiarazitako eragiketetatik datorren ekitaldiko soberakina, zergetatik garbi</b>	<b>---</b>	<b>---</b>
<b>A.5) EKITALDIAREN SOBERAKINEAN AINTZATETSITAKO ONDARE GARBIAREN BARIAZIOA</b>	<b>46.249,57</b>	<b>52.933,91</b>
<b>C) ONDARE GARBIARI ZUZENEAN EGOTZITAKO DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK</b>		
<b>3. Jasotako diru-laguntzak</b>	<b>(4.018,33)</b>	<b>(2.784.614,47)</b>
<b>4. Jasotako dohaintzak eta legatuak</b>	<b>(64.502,41)</b>	<b>(245.855,65)</b>
<b>C.1) Ondare garbian zuzenean aintzatzetako diru-sarrera eta gastuengatiko ondare garbiaren bariazioa</b>	<b>(68.520,74)</b>	<b>(3.030.470,12)</b>
<b>D) BIRSAILKAPENAK EKITALDIAREN SOBERAKINARI</b>		
<b>3. Jasotako diru-laguntzak</b>	<b>9.477,87</b>	<b>3.704.526,06</b>
<b>4. Jasotako dohaintzak eta legatuak</b>	<b>170,20</b>	<b>200.170,20</b>
<b>D.1) Ondare garbiaren bariazioa ekitaldiaren soberakinari egindako birsailkapenagatiko</b>	<b>9.648,07</b>	<b>3.904.696,26</b>
<b>E) Ondare garbiaren bariazioak ondare garbiari zuzenean egotzitako diru-sarrera eta gastuengatik (C.1 + D.1)</b>	<b>(58.872,67)</b>	<b>874.226,14</b>
<b>I) BESTELAKO BARIAZIOAK</b>	<b>(3.477.224,12)</b>	<b>---</b>
<b>J) EKITALDIKO ONDAREN GARBIAREN BARIAZIOAREN EMAITZA, GUZTIRA (A.5 + E + F + G + H + I)</b>	<b>(3.489.847,22)</b>	<b>927.160,05</b>



Vizcaya Galdakosoa 6-5ª dcha  
Tel: 945 271 374 Fax: 945 288 050  
01009 Vizcaya Gasteiz

Agencia Z-1ª dcha.  
Tel: 943 470 577 Fax: 943 401 419  
20003 Donostia-San Sebastián

Guan Yba. 42. Pto. dcha.  
Tel: 944 232 927 Fax: 944 239 638  
48011 Bilbao

AUDITORÍA

**INFORME DE AUDITORÍA DE CUENTAS ANUALES**

**A la Asamblea General de  
HEGOA, INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y  
COOPERACIÓN INTERNACIONAL:**

1. Hemos auditado las cuentas anuales de HEGOA, INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL, que comprenden el balance al 31 de diciembre de 2012, la cuenta de resultados y la memoria correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha. La Junta Directiva de la Entidad es responsable de la formulación de las cuentas anuales de la Entidad, de acuerdo con el marco normativo de información financiera aplicable a la Entidad (que se identifica en la Nota 2 de la memoria adjunta) y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo. Nuestra responsabilidad es expresar una opinión sobre las citadas cuentas anuales en su conjunto, basada en el trabajo realizado de acuerdo con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigente en España, que requiere el examen, mediante la realización de pruebas selectivas, de la evidencia justificativa de las cuentas anuales y la evaluación de si su presentación, los principios y criterios contables utilizados y las estimaciones realizadas, están de acuerdo con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación.
2. En nuestra opinión, las cuentas anuales del ejercicio 2012 adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de HEGOA, INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL al 31 de diciembre de 2012, así como de los resultados de sus operaciones correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y; en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

-1-



3. Las cuentas anuales del ejercicio 2012 adjuntas son las primeras que HEGOA, INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL prepara aplicando el Plan General de Contabilidad aprobado por el Real Decreto 1491/2011. De acuerdo con la Disposición Transitoria única del citado Real Decreto, se han considerado las presentes cuentas anuales como cuentas anuales iniciales, por lo que se incluyen cifras comparativas sin adaptar del ejercicio precedente. En la Nota 2.4 de la memoria "Comparación de la información y aspectos derivados de la transición a las nuevas normas contables" se incluye la cuantificación del impacto que produce la variación de los criterios contables en el patrimonio neto al 1 de enero de 2012, fecha de transición. Nuestra opinión se refiere exclusivamente a las cuentas anuales del ejercicio 2012.
4. La actividad de la Entidad se halla financiada en su mayor parte por las ayudas que percibe, básicamente, de los Organismos Públicos en forma de subvenciones. Por ello, la continuidad de la actividad se encuentra supeditada al mantenimiento de dichas ayudas.
5. Con fecha 11 de mayo de 2012 emitimos nuestro informe de auditoría acerca de las cuentas anuales del ejercicio 2011, en el que expresamos una opinión favorable.

**ZUBIZARRETA CONSULTING, S.L.**  
Sociedad inscrita en el R.O.A.C. con el nº 54855


Fdo.: Jon Andoni Legarreta Elgezabal  
- Socio -

Bilbao, 3 de mayo de 2013




## HEGOA ELKARTEAREN 2012ko kontuak. Eurotan. 2012/12/31

2012ko ekitaldiari egotzitako sarrerak	2.920.545,01	%100,00
Eusko Jaurlaritza	1.900.212,00	%65,06
Bizkaiko Foru Aldundia	99.811,75	%3,42
Bilbao Bizkaia Kutxa	364.277,01	%12,47
Espainiako Gobernua	341.988,77	%11,71
Funts propioak	49.573,52	%1,70
Bilboko Udala	8.997,62	%0,31
Beste dohaintza pribatu batzuk (BMN)	64.332,21	%2,20
Euskal Fondoa	16.809,40	%0,58
UPV/EHUren laguntza master ofizialei	40.000,00	%1,37
Beste ekarpen batzuk.	26.870,46	%0,92
Interes finantzarioak	7.672,27	%0,26



2012ko ekitaldiari egotzitako gastuak	2.874.295,44	%100,00
Transferentziak lurzoruei eta proiektuetako bazkideei	943.552,92	%32,83
Langileria-gastuak (25'5 pertsona, batez beste, urtean)	1.012.576,62	%35,23
Gastuak Egoitzan, proiektuak betearazteko	590.535,72	%20,55
Laguntza pertsonai. Master ofizialak eta NB	280.993,04	%9,78
Gastu orokorrak (langileria izan ezik)	46.637,14	%1,62



2012ko ekitaldiko emaitza:	46.249,57
----------------------------	-----------

